



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 13a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00012. Foru Legea, justizia errestitatiboari, bitartekaritzari eta jardunbide errestitatibo komunitarioei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-22/LEY-00020. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).
- 10-23/LEY-00003. Foru Legea, Sagasetako Kontzejuaren herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (34. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-23/PRO-00004. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (35. or.).
- 10-23/PRO-00006. Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00012. Foru Legea, justizia errestituratihoari, bitartekaritziari eta jardunbide errestituratiho komunitarioei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, justizia errestituratihoari, bitartekaritziari eta jardunbide errestituratiho komunitarioei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, justizia errestituratihoari, bitartekaritziari eta jardunbide errestituratiho komunitarioei buruzkoa

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Foru-legearen helburua.
3. artikulua. Prozesuak gidatzen dituzten printzipioak.
4. artikulua. Kalitatea.
5. artikulua. Irisgarritasun unibertsala.
6. artikulua. Lurralde-ekitatea.
7. artikulua. Ekitate soziala.
8. artikulua. Haurren babesa.
9. artikulua. Genero-ikuspegia.
10. artikulua. Baliabide elektronikoak.
11. artikulua. Justizia errestituratihoa, bitartekaritza eta jardunbide errestituratiho komunitarioak sustatzeko politiken helburuak.

I. titulua. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzua

12. artikulua. Izaera juridikoa.

13. artikulua. Aplikazio-eremua.

14. artikulua. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuaren funtzionamendurako irizpideak.

15. artikulua. Zerbitzu publikoaren bermea.

16. artikulua. Kalitatearen bermea.

17. artikulua. Justizia errestituratihoaren prozesuetan bideratzaile aritzeko prestakuntza.

18. artikulua. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuari buruzko informazioa eta erabiltzeko eskaera.

19. artikulua. Beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzea.

20. artikulua. Justizia errestituratihoaren teknikak.

21. artikulua. Zigor arloko bitartekaritza.

22. artikulua. Konferentzia errestituratihoak.

23. artikulua. Zirkulu errestituratihoak.

24. artikulua. Lantegi eta programa errestituratihoak.

25. artikulua. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuaren prozesuen emaitzak.

26. artikulua. Jarraipena.

27. artikulua. Zabalkundea.

II. titulua. Bitartekaritza sustatzea.

28. artikulua. Kontzeptua.

29. artikulua. Aplikazio-eremua.

30. artikulua. Sustapen neurriak.

31. artikulua. Informazioa.

32. artikulua. Herritarren artean zabaltzea.

33. artikulua. Prestakuntzaren sustapena.

34. artikulua. Bitartekarien eta bitartekaritza-erakundeen lanaren kalitatea sustatzea.

35. artikulua. Funtzionamendu irizpideak.

36. artikulua. Baterako bitartekaritza.

37. artikulua. Kalitatearen bermea.

38. artikulua. Bitartekaritza erakundeak.

39. artikulua. Kalitate Zigilua.

40. artikulua. Lanbide-elkargoak.

41. artikulua. Doako bitartekaritza.

42. artikulua. Bitartekaritza administratiboa eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena-koa sustatzea.

43. artikulua. Bitartekaritza administratiboa sustatzeko hitzarmenak.

III. titulua. Jardunbide errestituratio komunitarioak.

44. artikulua. Definizioa.

45. artikulua. Aplikazio-eremua.

46. artikulua. Printzipioak.

47. artikulua. Jardunbide errestituratio komunitarioak sustatzea.

48. artikulua. Jardunbide errestituratioetan boluntarioak areagotzeko neurriak.

49. artikulua. Jardunbide errestituratioetako prestakuntza sustatzeko neurriak.

50. artikulua. Jardunbide errestituratioen programak eta teknikak.

IV. titulua. Antolaketa administratiboa Nafarroako Foru Komunitatean.

51. artikulua. Nafarroako Gobernuaren jarduna.

52. artikulua. Jarduketan koordinazioa.

53. artikulua. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako bitartekarien eta bitartekaritza-erakundeen jarduna.

Lehen xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Bigarren xedapen gehigarria. Plan estrategikoa eta kalitate plana.

Hirugarren xedapen gehigarria. Dirulaguntzen deialdia.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

HITZAURREA

I

Justizia gure ordenamendu juridikoaren balio gorenetakoa bat da, berdintasunarekin, askatasunarekin eta pluralismo politikoarekin batera. Espainiako Konstituzioak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren toki gorenean kokatzen du balio hau, eta gure arkitektura instituzionalean justiziak duen nagusitasunak dakartzan funtsezko printzipio eta eskubide batzuk arautzen ditu. Horrela, justiziaren funtsezko balio hori oinarritzat duten printzipioen artean daude legezketasuna eta arbitrariotasunaren debekua (9.3 artikulua), eta eskubideen artean, berriz, benetako babes judizialarena (24. artikulua) eta zigorren helburua gizarteratzea izatearena (25.2 artikulua) daude, besteak beste. Berme guztiak beteko dituen epaiketa bidezkoa izateko eskubideak ahalbidetzen du bakea eta segurtasuna sendotzea, gatazkak giza bidez konpontzen baititu, arazoia emanez legetan ezarritakoaren arabera merezi duenari, eta kolektibitateari kalte egiten dioten baimendu gabeko portaerak gaitzetsiz eta haien jarraipena galarriz. Justizia balio gisa mamitzeko, jardura jurisdikzionala bete behar da, epaitegi eta auzitegietan bete ere, ez beste inon, baina gizartea ere behar du ondoan, osotara garatuko bada. Beraz, justizia balio bat da eta, horrekin batera, bizitza kolektiboren bilakaera baketsurako ezinbestekoak diren jardueren multzo bat ere.

XXI. mendearen bigarren hamarkadan justizia egiteko beharrezkoa da epaitegi eta auzitegien lana osatzea zenbait zerbitzu, teknika eta antolaketa neurriekin, horien bidez posible delako sakontzea jurisdikzio-ahalaren erro demokratikoetan, Konstituzioak esleitzen dizkionetan, ahal hori "herriarengandik sortzen dela" adierazten baitu 117. artikuluan. Europako eta estatuko hainbat lanabes juridikotan adierazten denez, justizia demokratikoagoa eta pertsonen beharretatik hurbilagoa eraikitzeko, zeregin zentrala dute, batetik, ikuspegi errestituratioak, paradigma emankorra eta sendotua baita, eta, bestetik, bitartekaritzak, tresna ezaguna eta zabaldua den aldetik.

Justizia sozial eta demokratiko batek herritarren parte-hartzea behar du, haien gatazkak modu itunduan konpontzeko bidea emanez. Parte-hartze hori ez da ulertu behar justiziaren pribatizazio gisa, justiziak ondasun juridiko komunaren defentsaren bidez legitimatzen jarraitu behar baitu, bai zik eta erakunde eta botere publiko guztien oinarri demokratikoaren sakontze gisa. Hori dela eta, herritarrek justizian duten parte-hartzea jurisdikzio-ordena guztietan erraztu eta indartu behar da, ebatzi beharreko gatazken izaeraren arabera ego-

kiak diren bermeak eta babesak ezarriz. Horrenbestez, nahitaezkoa da modu bateratuan baina ikuspegi desberdinekin arautzea Nafarroako Gobernuak justizia errestituatiboaren zerbitzuan dituen baliabideak, zigor arloan, batetik, eta arlo zibileko, merkataritzako eta administrazioarekiko auzien arloko bitartekaritzan, bestetik; horri gehitu behar zaio gatazken judizializazioaren prebentzioa sustatzeko lana, jardunbide errestituatibo komunitarioen bitartez.

Gai hauek arautzeko premia eta aukera nazioarteko tresna ugari ere justifikatzen dute, botere publikoak adoretzen baitituzte justizia errestituatiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestituatiboak sustatzeko arau-esparru propioak ezartzera.

II

Lehenengo eta behin, biktimei ikuspegi errestituatibotik arreta ematea Europako legedi loteslearen xede izan da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/29/EB Zuzentarauaren bidez; izan ere, zuzentarau horrek gutxieneko arauak ezartzen ditu delituen biktimei eskubideei, babesari eta laguntzari buruz, eta Kontseiluaren 2001/220/JAI esparruerabakia ordezkatzan du. Zuzentarau hori Delituen Biktimei Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez ekarri da Espainiako ordenamendu juridikora; atarikoan justizia errestituatiboari buruzko kontzeptu zabala egiten du bere, bitartekaritza, zirkuluak eta konferentzia familiarak barne, eta horixe da, hain zuzen ere, Nafarroako Justizia Errestituatiboaren Zerbitzuaren funtzionamendua gidatzen duen ikuspegia. Biktimei arretaren arloan eta bitartekaritza eta jardunbide errestituatiboen sustapenaren arloan, foru-lege honek aintzat hartzen du bereziki genero-ikuspegia, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean eta Emakumeen kontra eta Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz, eta, horrekin batera, sexu orientazioan, genero eta sexu- edo genero-identitatearen adierazpenean oinarritutako diskriminazio ororen prebentzioa, zuzenketa eta desagerpena, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legean jasotzen den bezala.

Europako Kontseiluaren esparruan, aipatu beharra dago duela gutxi Veneziako Adierazpena, 2021eko abenduaren 14koa, azpimarratzen baititu justizia errestituatiboko prozesuen abantailak, esanez, bereziki, borondatezko izaera dutela

eta noiznahi eten edo geldiarazteko aukera dagoela, eta berriz aipatzen du prozesua bideratuta dagoela kalte material eta immaterialak erreparatzera, eta oinarritzen dela borondatezkotasunean, parte-hartzean, konfidentzialtasunean, arau-hausleen gizarteratzean, bitartekarien edo bideratzaileen inpartzialtasunean eta, horrekin batera, estigmatizazioaren arriskua gutxitzean. Horrez gain, nabarmentzen du justizia errestituatiboa ez dela ikusi behar, soilik, “zigor arloko justiziaren ohiko ikuspegiaren barruko beste tresna huts bat bezala, baizik eta kultura zabalago bat bezala, zigor arloko justiziaren sisteman iragazi behar dena biktimei eta arau-hauslearen borondatezko parte-hartzea baliatuz, bai eta ukitutako beste alderdi batzuen eta komunitatearen ere, oro har, krimenak eragindako kalteari heldu eta hura erreparatzeko”.

Deklarazio horrek jorratzen du lehenago, 2018an, Ministroen Batzordeak Europar Batasuneko estatuei zigor arloko justizia errestituatiboaren arloan helarazitako CM/Rec (2018)8 Gomendioak (zigor arloko bitartekaritza buruzko R (99)19 Gomendioa indargabetu zuena) irekitako bidea. Foru-lege honek aitortu eta gomendio horrek adierazten duenez, justizia errestituatiboak babesten du “biktimei interes legitimoa beren ahotsa ozen entzunarazteko, biktimeizazioari erantzunez, ofentsaren egilearekin komunikatzeko eta erreparazioa eta asebetetzea lortzeko justizia prozesuaren testuinguruan”; aldi berean, ofentsa egilearen erantzukizunaren zentzua pizten da eta eragindako kalte erreparatzeko aukerak ematen zaizkie, eta horrek “lagundu lezake haien gizarteratzean, ahalbidetu lezake kalte-ordainketa eta elkar ulertzea eta delituak egiteari uztea bultzatzea”. Gomendio horri jarraikiz, foru-legean jasotzen dira Nafarroako Justizia Errestituatiboaren Zerbitzuaren “eskumen arauak eta arau etikak, bai eta bideratzaileak hautatu, trebatu, lagundu eta ebaluatzeko prozedurak ere” (Gomendioaren 36. apartatua). Orobat, Gomendioaren 59. eta 60. arauak jarraikiz, foru-legeak prozesu errestituatiboen erabilera zabala eta sormenezkoa bultzatzen du, judizializatu gabeko jardunbide errestituatiboak barne direla.

Bestalde, Nazio Batuen Erakundearen testuinguruan, foru-lege honekin 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren 16. helburua lortu nahi da: gizarte bidezko, baketsu eta inklusiboak sustatzea eta, aldi berean, zuzenbide-estatua finkatzea eta guztiontzako justizia eskuratzeko berdintasuna bermatzea. Alde horretatik, aipatu beharra dago, halaber, Justizia errestituatiboko programak zigor arloan aplikatzeko oinarritutako printzipioak (ECO-SOC 2002/12 Ebazpena), NBEko estatuak adore-

tzen dituztenak jarraibideak eta estandarrak ezartzera beren lege sistemetarako egokiak diren justizia errestitatiboko programen erabilera ezartzeko helburuarekin. Horrez gainera, justizia errestitatiboak dituen ahalmenei garrantzi berezia ematen die, krimenari ematen zaion erantzuna izateko, geroz eta zabalduagoa eta moldakorra, pertsona bakoitzaren duintasuna eta berdintasuna errespetatzen duen, ulermenaren sortzen duen eta biktimak, gaizkileak eta komunitateak sendatuz harmonia soziala sustatzen duen erantzun bat alegia.

Foru-lege honen aplikazio-eremutik kanpo daude genero-indarkeriari lotutako gaiak, Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean —Istanbulen 2011ko maiatzaren 11n adostu zen eta Espainiak 2014ko martxoaren 18an berretsi zuen— xedatutakoaren arabera.

III

Beste jurisdikzio-ordena batzuetan bitartekaritza baliatzeari dagokionez, Europako 2008ko maiatzaren 21eko 2008/52/EE Zuzentarauak, auzi zibil eta merkataritzakoetan bitartekaritzak dituen ezaugarri batzuei buruzkoak, aipatu zuen “bitartekaritzak auzitegi kanpoko konponbide merke eta azkarra ematen ahal diela auzi zibil eta merkataritzakoetako gatazkei, aldean beharretara egokitutako prozeduren bidez. Aukera gehiago daude bitartekaritzaren ondoriozko akordioak borondatez betetzeko eta aldean artean adiskidetasunezko harreman bideragarriari eusteko”. Era berean, zuzentaru horrek adierazi zuen ezen, “bitartekaritza maizago erabil dadin sustatzeko eta horretara jotzen duten aldeek esparru juridiko aurreangarria izatea bermatzeko, beharrezkoa da horren esparru-legeria ezartzea, batez ere prozedura zibilaren alderdi nagusiak jorratuko dituen”. Horrek ekarri zuen Espainian uztailaren 6ko 5/2012 Legea onestea, auzi zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritzari buruzkoa, eta, beraz, foru-legea legeria horri lotzen zaio.

Europako eta estatuko esparru hori aintzat hartuta, foru-araudiak erregulatzen du Nafarroako Foru Komunitateak, bere autoantolaketarako gaitasunen barruan, bitartekaritza bultzatu eta sustatzeko modua, eta Nafarroan ezartzen diren sustapen metodoak ezartzen ditu, bereziki Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa eta Bitartekaritzaren alorreko Kalitate Zigilua. Administrazioarekiko auzien arloan ere bitartekaritza sustatzeko zenbait bide ezartzen dira, estatuan gai horri buruzko erregulazio espezifikorik ez baitago.

IV

Komeni da azpimarratzea justizia errestitatiboa zein auzitegi barruko bitartekaritza justizia-zerbitzu publikoaren parte direla guztiz, eta, beraz, horren berme guztiak dituztela haiek ere. Ildo horretatik, errespetatu eginen dira defendatua izateko, legegari-laguntza jasotzeko eta doako laguntza juridikoa eskatzeko oinarritzko eskubideak. Esparru penalean, akusatua den pertsona orok abokatu baten laguntza jaso beharko du prozesu errestitatiboan, auzibidean jasoko lukeen baldintza beretan. Auzitegi barruko bitartekaritzan ere legegari-laguntzak bermatuta egon behar du, alderdi bakoitzaren abokatuaren aholkularitza-eginkizunaren eta gidaritza juridikoaren kaltetan izan gabe. Alderdiaren abokatuak bezeroari lagunduko dio bitartekaritza prozedura osoan zehar, aholkuak emanez edozein unetan, zainduz emaitzak legeria betetzen duela, diseinatutako estrategiak ere zainduz, eta akordioen edukiak gainbegiraturaz horiek sinatu aurretik.

Azkenik, jardunbide errestitatibo komunitarioak gatazkak prebenitzeko eta judizializatu gabeko gatazkak konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzeko ere, helburu dutenak konfiantzazko, errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan. Jardunbide horien aplikazio eremua prozedura judizialek kanpo gertatzen diren gatazkak dira, eta ez dute ondorio juridiko loteslerik izateko asmorik. Europako Kontseiluaren 8 (2018) Gomendioak, arestian aipatutakoak, estatuak adoretzen ditu “eredu errestitatibo berritzaileak garatzera, zigor prozeduratik kanpo gera daitezkeenak”, eta, horregatik, jardunbide errestitatibo komunitarioak garatzeko esparru bat ere ezartzen du. Gatazkak prebenitzeko, kudeatzeko eta auzitegi kanpo konpontzeko politika publiko bat ezartzeko garrantziak berekin dakar jardunbide errestitatibo komunitarioak foru-lege honetan batera arautu beharra, ikuspegi errestitatiboaren partaidetzazko paradigma malgu eta dialogikoak bere baitan har ditzan gatazken inguruko alderdi guztiak, gatazka arin baten lehen zantzuetatik hasita.

Azaldutako guztiagatik, guztiz justifikatuta irizten zaio Nafarroan justizia errestitatiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestitatiboaren zerbitzuan jartzen diren bitarteko guztiak arautzeko aukerari, Espainian eta nazioartean dagoen lege esparruarekin bat etorrita, eta Nafarroak Garapen Jasangarriko Helburuak betetzearekin duen konpromisoa indartzera dator.

V

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 60.1 artikuluan jasotako subrogazio-klausula deritzonaren bidez, Nafarroak eskumen propioak ditu Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabide materialak eta ekonomikoak hornitzeko. Eskumen horrek, "Justizia Administrazioa administratzekoa" deitu ohi denak, ahalbidetzen dio Nafarroari Justizia Administrazioari laguntzen dioten zerbitzuak sortzea. Eskumen horrek ahalbidetzen du Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua sortzea, bai eta bitartekaritzaren funtzionamenduaren hobekuntza sustatzeko neurriak ezartzea ere, estatuko legeriaren barruan betiere.

Foru-lege honetan ez da arautzen zigor ordenako, ordena zibileko edo beste edozein jurisdikzio-ordenatuko alderdi prozesal edo substantiborik. Alde horretatik, ez da arautzen bitartekaritzako eta justizia errestauratiboko prozedurarik, ez eta lege tresna horien definizioa eta ezaugarriak ere; izan ere, foru-lege honen helburua da Nafarroan Justizia Administrazioaren zerbitzuan jartzen diren tresna administratiboak sortu eta arautzea.

Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren gaineko arauak, I. tituluan ezarritakoak, oinarrituta daude Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 60.1 artikuluan jasotako aurreikuspenean, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu zuen Justizia Administrazioaren arloko eskumenen titulartasuna; aurreikuspen hori gauzatzeko, maiatzaren 14ko 813/1999 Errege Dekretua onetsi zen, Justizia Administrazioa baliabide material eta pertsonalez hornitzearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzeari buruzkoa, ondorioak 1999ko urriaren 1ean izan zituen. Justizia Administrazioa bere funtzionamendurako baliabide material eta ekonomiko hornitzearen arloko eskumen horren barruan dago bere elementuen antolaketa beharrezko dituen araugintza-ahalmenak erabiltzea, estatuko legeriaren barruan betiere. Hortaz, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen 15. artikuluekin lotu behar da, zeinak arautzen baitu biktimek eskubidea izanen dutela dauden justizia errestauratiboko zerbitzuak erabiltzeko, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Nafarroako Foru Komunitateak arautzen du Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren barne funtzionamendua, berak finantzatzen du, eta zerbitzu hori biktimei laguntza espe-

zializatua emateko zerbitzu publikotzat hartu behar da.

Ordena zibilean, merkataritzakoan eta administrazioarekiko auzien ordenan bitartekaritzaren sustapena arautzeko gaikuntza ematen duen eskumenari dagokionez, kasu honetan ere oinarria Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 60.1 artikuluan dagoen aurreikuspena da, baina auzi zibil eta merkataritzakoetako bitartekaritzari buruzko uztailaren 6ko 5/2012 Legearekin lotuta. Estatuko lege horren bigarren xedapen gehigarriak, "bitartekaritzaren sustapena" aipatzen duenak, finkatzen du dagoen lege esparrua, xedatzen baitu "Justizia Administrazioaren zerbitzurako baliabide materialak hornitzeko eskumena duten administrazio publikoak arduratuko dira bitartekaritzari buruzko informazioa jurisdikzio-organoen eta jendearen esku jartzear, prozesu judizialaren alternatiba gisa" eta "administrazio publiko eskudunak ahaleginduko dira bitartekaritza ere egon dadin Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6. artikuluan ezarritako prozesuaren aurreko doako aholku eta orientabideen artean, auzien kopurua eta haien kostuak murrizteko aukera emanen duen heinean". Erregulazio horren mugei dagokienez, Estatu Kontseiluak ohartarazi zuen 2012ko otsailaren 17ko Erabakian "arau autonomikoek beren bitartekaritza arauak egokitu beharko dituzte, bat etor daitezzen estatuko legearekin, Konstituzioaren 149.1.Seigarrena eta Zortzigarrena artikulua Estatuari emandako eskumen eksklusiboak direla medio". Hori da foru-lege honen abiapuntua. Horrenbestez, errespetatzen dira estatuko legerian jasotako printzipioak eta ezartzen dira Nafarroan sustapenerako sortuko diren borondatezko metodo propioak, bereziki Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa, Bitartekaritzako Kalitate Zigilua, Plan Estrategikoa eta Kalitate Plana. Metodo horiek ez dira herrialde osoan lanbide horretan aritzeko estatuko betebeharren aurkakoak, ez eta estatuko borondatezko erregistroaren aurkakoak ere. Esan beharra dago, orobat, Konstituzioaren 149.1.Zortzigarrena artikuluari jarraikiz Nafarroak legeria zibilean berezitasunak ezartzeko eskumenak baditu ere, bitartekaritzari eta justizia errestauratiboari buruzko foru-lege honek ez duela inolako aldaketarik egiten arlo horretan. Era berean, administrazioarekiko auzien arloko legeriari dagozkion eskumenak errespetatzen dira, eta soilik ezartzen da prozesu horiek sustapenaren aurreikuspena egitea indarreko legeriari jarraikiz, kontuan hartuta Estatuak ez dituela berariaz arautu.

Bukatzeko, jardunbide errestituratiboatarako gaikuntza ematen duen eskumena Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.18 artikuluan jasota dago, Nafarroak "garapen komunitarioan" eskumen eskusiboa duela deklaritzen baitu. Jardunbide errestituratiho komunitarioak, foru-legean bertan definituta dauden bezala, "gatazkak prebenitzeko eta judizializatu gabeko gatazkak konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzekoak ere, helburu dutenak konfiantzazko, errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan". Berriaz aipatzen denez, "jardunbide errestituratiho komunitarioak prozedura judizialek kanpo garatzen dira, eta ez dute ondorio juridiko loteslerik izan nahi". Horregatik guztiagatik, garapen komunitarioko prozesuak, tresnak eta teknikak dira, prozesu judizialek kanpo daudenak, eta Foru Hobekuntzaren 44.18 artikuluan horretarako ezarritako eskumen eskusiboaz baliatuz arautu daitezkeenak.

VI

Justizia errestituratihoari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituratiho komunitarioei buruzko Foru Legeak 53 artikulua ditu, bost titulutan egituratuta, bai eta 3 xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ere.

Atariko tituluan xedapen orokorrak jasotzen dira, oro har aplikatzen ahal zaizkionak Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuari, bitartekaritzari eta jardunbide errestituratiho komunitarioei. Foru-legearen xedeak ezartzen dira, zehatz-mehatz prozesu guztien kalitatea bermatzea eta zerbitzu homogeneoak sustatzea Nafarroako Foru Komunitate osoan. Prozesuak gidatzen dituzten printzipioak arautzen dira eta zenbait gai bermatzeko neurriak ezartzen dira: kalitatea, irisgarritasun unibertsala, lurralde-ekitatea, haurren babesa, genero-ikuspegia eta bitarteko elektronikoen bidezko garapena.

I. titulua Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuaren funtzionamendua arautzen du, eta haren kontzeptua eta aplikazio-eremua ezartzen ditu. Lehen aipatutako Europako Kontseiluaren 8 (2018) Gomendioarekin bat, kontzeptua oinarrituta dago ukitutako aldean eta komunitateen parte-hartzean, kaltearen erreparazioan eta biktimagileen erantzukizunean eta gizarteratzean. Estatuko legeriak ezartzen duen aplikazio-eremua da abiapuntua, eta zabaltzen da zigor prozesuren edozein fasetara eta mota eta

larritasun orotako delituetara, salbu eta indarreko legeria prozesal eta substantiboaren arabera berriaz debekatuta daudenen kasuan. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuaren funtzionamendurako irizpide espezifikoko batzuk ezartzen dira, eta horien arteko bat nabarmentzen da, berritasunagatik: ikuspegi sozial eta komunitarioarena. Bermeak ezartzen dira kalitatean, eskuragarritasunean eta zerbitzu publikoaren izaeran, bai eta bideratzaileen prestakuntzarako eta beste baliabide batzuekiko koordinaziorako. Azkenik, justizia errestituratihoan gehien erabiltzen diren teknikak aipatzen dira, zehazki, bitartekaritza, konferentziak, zirkuluak eta lantegi eta programa errestituratihoak.

II. titulua gai nagusia bitartekaritzaren sustapena da. Sustapenerako bide hauek ezartzen dira, besteak beste: informazioa eskura jartzea, kasu jakin batzuetan doako bitartekaritzako eskubidea ezartzea, hitzarmenak izenpetzea, dirulaguntzak ematea, prestakuntza eta zabalkunde jarduerak egitea eta egokia den beste edozein neurri. Aurreikusten da Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa eta Bitartekaritzako Kalitate Zigilua sortzea, ezartzen diren jokabide-kodeekiko atxikimendua bermatzeko.

III. titulua, berriz, auzitegiz kanpoko jardunbide errestituratiho komunitarioen definizioa eta aplikazio-eremua jasotzen ditu, gogoraraziz, izenak adierazten duen bezala, prozedura judizialek kanpo gauzatzen direla eta ez dutela ondorio juridiko loteslerik izateko asmorik. Printzipioak ere jasotzen dira, besteak beste kohesio soziala areagotzea, eta sustatzeko neurriak ezartzen dira, hala nola dirulaguntzetarako deialdi espezifikoko bat egitea, eta prestakuntza eta boluntariora laguntzea.

Azkenik, IV. tituluan prozesu horiek garatzeko baliabide material eta instituzionalen antolaketa administratihoia xedatzen da. Xedatzen da justiziarren arloko eskumena duen departamentuak bultzatu, antolatu eta gainbegiratu duela Justizia Errestituratihoaren Zerbitzua, bitartekaritzaren eta jardunbide errestituratihoen sustapena, zerbitzu horiek modu homogeneoan baliatzeko aukera egon dadin bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuta. Ezartzen da zerbitzuak lau urteko plan estrategiko bat eta bi urteko kalitate plan bat onetsi beharko dituela, bai eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa eta Kalitate Zigilua eskuratzeko baldintzak ere. Koordinaziorako mekanismo gisa hiru lantalde eratuko dira Nafarroako Justizia Kontseiluan, eta pertsona bitartekari eta bitartekaritza-erakundeen betebeharrak aipatzen dira. Xedapen gehigarrietan ezartzen

dira, batetik, legean aurreikusitakoa garatzeko behar den erregelamenduzko gaikuntza eta, bestetik, urtebeteko epea sustapenerako tresna horiek sortzeko, hau da, plan estrategikoa, kalitate plana, Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa, Kalitate Zigilua eskuratzeko baldintzak, doako bitartekaritzako eskubidea izateko prozedura eta funtzionatzeko modua, bai eta honako hauek onestea ere: dirulaguntzen deialdiaren oinarriak eta Nafarroako agente errestauratiboa izateko eta Nafarroako Sare Errestauratiboan parte hartzeko baldintzak.

ATARIKO TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea.

1. Foru-lege honek xede du gatazkak modu baketsuan konpon daitezen sustatzea, eta horretarako, arautzea, indarreko legeriarekin bat, Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua, bitartekaritza sustatzeko neurriak eta jardunbide errestauratibo komunitarioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eskaintzen dituenak.

2. Foru-lege honen aplikazio-eremutik kanpo daude genero-indarkeriari buruzko gai guztiak, hala nola bikote-harremanetako indarkeria, sexu-indarkeria edo genero-indarkeriatzat hartzen den beste edozein jokabide, Europako Kontseiluak emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta horien aurka borrokatzeari buruz 2011ko maiatzaren 11n Istanbulen egindako Hitzarmenean jasotakoaren arabera.

2. artikulua. Foru-legearen helburua.

Hona hemen foru-lege honen helburuak:

a) Beharrezko neurriak hartzea bermatzeko justizia errestauratiboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestauratiboetako zerbitzuak, programak eta prozesuak, bakoitza bere izaera bereziaren eta aplikatzekoa zaion legeriaren arabera, kalitate homogeneouskoak direla Nafarroako Foru Komunitate osoan.

b) Justizia errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestauratibo komunitarioak sustatzeko politiken helburuak finkatzea.

3. artikulua. Prozesuak gidatzen dituzten printzipioak.

Justizia errestauratiboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestauratiboetako prozesuak honako printzipio gidari hauekin bat garatuko dira, aplikatzekoa den legeriaren arabera.

a) Borondatezkotasuna. Parte hartzen duten pertsonen askatasun osoa dute prozesu hauetan parte hartzeko, bai eta edozein unetan horiei uko egiteko ere.

b) Berdintasuna. Parte-hartzaileek aukera-berdintasunez jardunen dute, eta prozesuaren arduradunak haien arteko oreka bermatzen dela zaindu beharko du, arreta berezia emanez gizonen eta emakumeen berdintasunari eta sexu- eta genero-aniztasunaren errespetuari.

c) Konfidentzialtasuna. Konfidentzialak izanen dira bai prozesuak, bai horiek iraun bitartean ahoz edo agiri bidez lortutako informazio guztia, salbu eta parte-hartzaileek betebeharrak hori betetzetik salbuesten badute, berariaz eta idatziz, edo legezko xedapenen batek hala xedatzen badu.

d) Inpartzialtasuna eta neutraltasuna. Prozesuaren arduradunak ez du prozesua hasiko edo utzi egin beharko du haren inpartzialtasunari eragiten dioten egoerak daudenean, aplikatzekoa den legerian xedatutako printzipioei jarraikiz. Era berean, prozesuaren arduradunak alderdien borondatearekiko jarrera neutrala izan beharko du prozesu osoan zehar.

e) Fede ona eta elkarrenganako errespetua. Parte-hartzaileek eta prozesuaren arduradunak fede onaren eta elkarrenganako errespetuaren betebeharren arabera jardunen dute.

f) Malgutasuna. Parte-hartzaileek eta prozesuaren arduradunak egoki irizten dioten moduan antolatzen ahalko dituzte prozesuak, kasuaren ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta, betiere aplikatzekoa den legerian ezarritako funtsezko printzipioak betez.

g) Gaitasun teknikoa. Prozesuez arduratzen diren pertsonen horiek behar bezala gauzatu ahal izateko legez eskatutako prestakuntza tekniko egokia izan beharko dute.

4. artikulua. Kalitatea.

1. Gobernuak zainduko du justizia errestauratiboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestauratiboetako zerbitzuek kalitate- eta espezializazio-estandarrik betetzen dituztela, kasuen izaerara eta gatazken ezaugarrietara egokituak, eta, beharrezkoa denean, genero ikuspegia eta arriskuen ebaluazioa zeharkakotasunez sartuta.

2. Ildo horretatik, justiziaren arloan eskumena duen departamentua arduratuko da, inplikaturik dauden instituzio eta erakundeen parte-hartzearekin, bi urteko kalitate-plan bat egiteaz. Plan horretan, beharrezkoak diren laguntza-, prestakuntza- eta ikuskapen-neurriak jasoko dira.

3. Orobat, justiziaren arloko eskumena duen departamentuak erregelamendu bidez ezarriko ditu, indarreko legeriaren barruan, funtzionamendu protokoloak eta jokabide-kodeak. Protokolo eta kode horiek prozesuen izaeraren arabekoak izan beharko dute, eta inplikaturako pertsonen eta instituzioen parte-hartzearekin egiten dira.

4. Kasu guztietan, Nafarroako Gobernuak begiratuko du justizia errestituatiboko, bitartekotzak eta jardunbide errestituatiboetako zerbitzuek berdintasunaren arloko prestakuntza sar dezatela zerbitzu horiek ematen dituzten pertsonen eta instituzioen trebakuntzan eta prestakuntzan, eta prestakuntza hori Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bidez baliozkotu beharko da.

5. artikulua. Irisgarritasun unibertsala.

1. Foru-lege honetan arautzen diren zerbitzuek eta programek bermatu beharko dute desgaitasuna dutenen irisgarritasun unibertsala, irisgarritasun unibertsalari eta desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko foru-araudian jasotakoarekin bat. Horretarako, honako hauek bermatu beharko dira: prozesuak garatzen diren guneen irisgarritasuna, zeinuen hizkuntza eta ahozko komunikazioari laguntzeko bitartekoak erabiltzea, braille sistema, ukimenezko komunikazioa edo beste edozein sistema, desgaitasuna dutenek prozeduran baldintza-berdintasunean parte hartzen dutela ziurtatzeko.

2. Ildo horretan, prozesuetan egoten ahalko dira, halaber, pertsona horien laguntza-premia berariazkoei erantzuten dieten eta saioetan komunikazioa ahalbidetzen duten pertsonak, zeinak lotuko baitzaizkie foru-lege honen funtsezko printzipioei, bereziki konfidentzialtasunaren printzipioari.

6. artikulua. Lurralde-ekitatea.

1. Nafarroako Gobernuak bermatu beharko du justizia errestituatiboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestituatiboetako zerbitzuak eta programak baldintza-berdintasunean eskuratzen direla Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoan.

2. Zerbitzu eta programa horiek, haien izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, pertsonengandik ahalik eta hurbilen dagoen eremuan eman beharko dira.

7. artikulua. Ekitate soziala.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du bereziki kalteberak diren pertsonak edo kolektiboak –inguruabar pertsonalak, familiarrak, sozialak edo juridi-

koak tarteko– zerbitzu eta programa horietan sartzeari, eta arreta pertsonalizatua eskainiko die dauzkaten behar horiek ezagutzeko eta horiei erantzuteko.

2. Hori horrela, behar diren laguntzak gaituko dira zerbitzu eta programa horietara sartzeari eragozten duten oztopo praktikoak gainditzeko.

8. artikulua. Haurren babesa.

1. Adingabeek parte hartzen ahalko dute indarreko legeriaren arabera haien parte-hartzea eta babesa arautzen diren kasuetan eta bermeekin.

2. Zerbitzuak eta programak haien beharretara egokitzeko behar diren neurriak sustatuko dira, eta haien parte-hartzea segurua eta erabatekoa izatea zainduko da.

9. artikulua. Genero-ikuspegia.

1. Foru-lege honetan araututako zerbitzuek eta programek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipio konstituzionalaren eraginkortasuna bermatuko dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean ezarritako moduan.

2. Horiek horrela, 4.2 artikuluan xedatutako Kalitate Planak berariaz jaso beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa, ikuspegi intersektional batekin.

10. artikulua. Baliabide elektronikoak.

1. Aplikatzekoa den legeriarekin bat, zerbitzu eta programa horien jarduketak telematikoki egiteko erraztasunak emanen dira, presentzialki egitea ezinezkoa denean.

2. Eskubide hori gauzatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren tresnak jarri beharko ditu herritarren eta profesionalen eskura.

11. artikulua. Justizia errestituatiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestituatibo komunitarioak sustatzeko politiken helburuak.

1. Hona hemen justizia errestituatiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestituatibo komunitarioak sustatzeko politiken helburu nagusiak:

a) Herritar guztiek justizia errestituatiboa, bitartekaritza eta eztabaidak konpontzeko beste bitarteko egoki batzuk baldintza-berdintasunean eskuratzeko aukera izan behar dutela bermatzeko bitartekoak xedatzea, justiziaren zerbitzu publikoaren zati diren aldetik, indarreko araudian ezarri bezala.

b) Zerbitzu eta programa horien kalitatea eta efizientzia sustatzea, gatazken kudeaketan esku-

hartzearen printzipio deontologikoak errespetatzen direla zainduz.

c) Esparru komunitarioko gatazkak prebenitzea, eta halakorik gertatzen denean, horiek modu baketsuan eta elkarrizketa bidez konpontzen direla bultzatzea, gatazkakortasun soziala desjudizializatzeko.

d) Delituen biktimei eta horiek gertatu diren komunitateei eragindako kaltea erreparatzea.

e) Delituak egin dituztenen erantzukizuna eta gizarteratzea sustatzea, haien gizarte-baldintzaileak gainditzen lagunduz.

f) Gizarte-kohesioan laguntzea, konfiantza-, errespetu- eta zaintza-baldintza kolektiboak sortuz, halako moduz non sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudeatzen ahal dituen hasierako faseetan.

2. Helburu hauek lortzeko ekintza zehatzak lau urteko plan estrategiko batean bilduko dira. Plan horren xedea justizia errestitutiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestitutiboak sustatzea izanen da, eta justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak eginen du, inplikaturako eragileen parte-hartzearekin.

I. TITULUA.

Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzua

12. artikulua. Izaera juridikoa.

Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzua biktimei laguntza espezializatua emateko zerbitzu publiko bat da, eta honako helburu hauek ditu: eragindako kaltearen erreparazioa, ofentsagileen erantzukizuna eta gizarteratzea, eta delituek kalteturako pertsonen eta komunitateen parte-hartzea.

13. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Biktimek justizia errestitutiboko zerbitzuak baliatzen ahalko dituzte Biktimaren Estatutuan eta indarreko gainerako legeetan ezarritako baldintzetan.

2. Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuak bere gain hartuko ditu organo judicial eskudunak bideratzen dizkion kasuak, zigor arloko prozesuaren edozein faseetan, edozein tipologia eta larritasun duten delituetan, berariaz debekaturako daudenak izan ezik, indarrean dagoen legeria prozesal eta substantiboaren arabera.

3. Zigor arloko erantzukizuna iraungitzen bada edo egiaztatzen ez bada, Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuak biktimek errepara-

zio moral egokia lortzeko helburua duten prozesuak garatzen ahalko ditu. Justiziaren arloan eskumenak dituen departamentuak baimendu beharko ditu prozesu horiek; ez dute zigor-xederik izanen, eta berme osoz errespetatuko dituzte abstentzioaren, konkurrentziaren eta ebazpen judiciallekiko loturaren eginbehar eta betebeharrak.

14. artikulua. Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuaren funtzionamendurako irizpideak.

Irizpide hauek bideratuko dute Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuaren funtzionamendua:

a) Parte-hartzea: ukitutako pertsonen eta komunitateen parte-hartze aktibo eta zuzena erraztu behar da.

b) Erreparazioa: pertsonen, komunitateen eta, oro har, gizarteari eragindako kalteari aurre egin behar zaio, eta hura erreparatzen saiatu.

c) Erantzukizuna: kaltea eragin dutenek hura erreparatzeko erantzukizun aktiboa bere gain har dezaten sustatu behar da.

d) Gizarteratzea: prozesuak arau-hausleen gizarteratzea sustatu behar dute, arreta jarriz jokatze bide kaltegarri eta bidegabean oinarrian dauden faktore personal eta sozialei. Prozesua ez amaitzeak ez die ondorio negatiborik ekarriko parte-hartzaileei.

e) Biktimen babesa: prozesuak biktimen segurtasuna bermatu behar dute, biktimizazio sekundarioa saihestuz, prozesuen garapenean arriskurik egon ez dadin kalte material edo moral berriak eragiteko.

f) Ekitatea: inplikaturako alderdien eskubideak eta premiak errespetatzen dituzten prozesuak aplikatu behar dira, menderakuntza edo boteredoreka saihestuz, arreta berezia jarriz gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari.

g) Ikuspegi soziala eta komunitarioa: prozesuaren xedea izanen da bakearen kultura bultzatzea ukitutako komunitateen eta, oro har, gizartean, eta behar diren baldintzak sustatzea jokatze bide kaltegarriak errepara ez daitezkeen.

15. artikulua. Zerbitzu publikoaren bermea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bermatuko du Nafarroako Justizia Errestitutiboaren Zerbitzuaren prestazioa publikoa eta doakoa izatea, foru-lege honetan eta indarreko legerian zehazturako baldintzetan.

2. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak bermatuko du Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuaren kalitatea eta zerbitzu publikoaren izaera.

3. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua zuzenean ematen ahalko da edo entitate publiko nahiz pribatuekin hitzarmen edo kontratuak eginez edo zerbitzu publikoak zeharka emateko legez ezarrita dagoen beste edozein bide erabiliz.

16. artikulua. Kalitatearen bermea.

1. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak kalitatea ebaluatzeko sistema bat izanen du, gogobetetasun inkesten bidez edo beste metodologia egoki batzuen bidez. Zerbitzuen ikuskapena eta kanpo ebaluazioak egiten ahalko dira, 4.2 artikuluko bi urteko Kalitate Planean ezartzen denaren arabera.

2. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak datuak erregistratzeko sistema egokiak izanen ditu, aztertzen dituen kasuei buruzko informazioa bildu ahal izateko, betiere datuak babesteko araudia errespetatuz. Gutxienez, aplikatutako justizia errestitiboko teknika eta prozesuaren emaitza erregistratuko dira.

3. Datu anonimoak edo anonimo bihurtutakoak ondasun komuntzat hartuko dira, eta gizartearen eskura jarriko dira, politika publikoen ikerketa eta ebaluazioa errazteko, interes orokorraren mesedetan.

17. artikulua. Justizia errestitibokoaren prozesuetan bideratzaile aritzeko prestakuntza.

1. Nafarroako Gobernuak finantzatzen dituen justizia errestitibokoaren taldeetako kideen prestakuntza eta baldintzak justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak ezartzen dituen kontratu, hitzarmen eta protokoloetan zehaztuko dira, foru-lege honetan eta aplikatzeko den estatu-araudian jasotako eskakizunak eta printzipioak kontuan hartuta.

2. Justizia errestitibokoaren bideratzaileen taldeek, Nafarroako Gobernuak finantzatutakoek, justizia errestitibokoari buruzko prestakuntza espezializatua jasoko dute, zeinak gaitasun eta trebetasun maila handia emanen baitie gatazkei ikuspegi errestitibotik aurre egiteko. Horrez gain, honako hauen gaineko ezagutza eskuratuko dute: pertsona kalteberekin, biktimekin eta ofentsagileekin lan egin ahal izateko berriazko baldintzak, eta zigor arloko sistema judiziala, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza ere.

3. Erregelamenduz zehaztuko da zein den Nafarroako Gobernuak finantzatzen dituen justizia errestitiboko taldeek behar duten prestakuntza aurreratuaren edukia eta iraupena kasu delikatu, konplexu edo larrietan jardun behar dutenean.

18. artikulua. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuari buruzko informazioa eta erabiltzeko eskaera.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko du biktimeen eskubidea justizia errestitiboko zerbitzuak erabiltzeari buruzko informazioa jasotzeko, legez posible denean, agintari eskudunekin duten lehenbiziko harremanetik hasita.

2. Nafarroan delitu bat jasan duten pertsona guztiek eskatzen ahalko dute Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua erabiltzea. Eskaera hori egiteko ez da beharrezkoa izanen aldezturitik salaketa bat aurkeztu izana.

3. Nafarroako Foru Komunitatean egindako delitu bat egozten zaien pertsonak ere eskatzen ahalko dute zerbitzu hau erabiltzea.

4. Orobat, zerbitzu hori baliatzeko eskaerak egiten ahalko dituzte Biktimei Laguntzeko Bulegoak, Zigor Betearazpeneko Atalak, errestitiboko eta bitartekaritza-prozesuak egiten dituzten elkar-go profesionalak edo gertaeren berri duen beste edozein zerbitzu publikok.

5. Erabiltzeko eskaera jaso ondoren, Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzuak informazioa emanen die eskatzaileei haien eskubideei buruz eta eskaera ebaluatuko du, organo judizialari auzitegi barruko prozesu errestitiboko bat proposatzeko, indarreko legeriaren barruan betiere.

19. artikulua. Beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzea.

1. Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua justiziaren eskumena duen departamentuko Biktimei Arretarako Bulegoarekin koordinatuko da, zerbitzu bakoitzaren autonomia funtzionalari eutsiz.

2. Kasuaren ezaugarrien arabera, beste zerbitzu eta erakunde batzuekin koordinatzen ahalko dira, besteak beste honako arlo hauetan aritzen direnekin: zigor arloko betearazpena, eskubide sozialak, migrazio politikak, adikzioen tratamendua, osasun mentalaren arreta, sexu- eta genero-antiztasunaren arreta, besteak beste.

20. artikulua. Justizia errestituratihoaren teknika.

1. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuak estatuko legerian eta foru-lege honetan jasotako definizioa eta printzipioak errespetatzen dituen edozein teknika edo metodologia erabiltzen ahalko du.

2. Hona hemen Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuak eskainiko dituen funtsezko teknika errestituratihoak: zigor arloko bitartekaritza, konferentzia errestituratihoak, zirkulu errestituratihoak eta lantegi eta programa errestituratihoak.

21. artikulua. Zigor arloko bitartekaritza.

1. Zigor arloko bitartekaritza prozesu errestituratiho bat da, zeinean biktimea batek edo batzuek eta biktimgileek elkarrizketa batean parte hartzen duten, bideratzaile batek edo batzuek lagunduta, delituaren ondorioak konpontzeko xedearekin.

2. Bitartekaritza prozesuak zeharka egiten ahal dira, alderdiak aurrez aurre komunikatu gabe.

22. artikulua. Konferentzia errestituratihoak.

1. Konferentzia errestituratiho izeneko prozesu errestituratihoan, biktimez eta biktimgileez gain, haien laguntzaileek ere parte hartzen dute, bideratzaile baten edo batzuen laguntzarekin.

2. Konferentzia errestituratihoek horretarako egiten diren protokoloetan ezarritako jarduteko jarraibideak beteko dituzte.

23. artikulua. Zirkulu errestituratihoak.

1. Zirkulu errestituratiho izeneko prozesu errestituratihoan, biktimez, biktimgileez eta haien laguntzaileez gain, delituak ukitutako komunitateko kideek ere parte hartzen dute, bideratzaile baten edo batzuen laguntzarekin.

2. Zirkulu errestituratihoek jarduteko jarraibide protokolizatuak beteko dituzte, eta inplikaturako pertsonen adostasuna lortzea izanen dute helburu.

3. Zirkulu errestituratihoak akordio zabalekin amai daitezke, zeinetan komunitateko kideen eta erakundeen parte-hartzea eta laguntza sartuko baita.

24. artikulua. Lantegi eta programa errestituratihoak.

Aurreko metodologiez gain, lantegi eta programa errestituratihoak ere ezartzen ahalko dira, hala nola espetxeko elkarrizketa errestituratihoak eta laguntza- eta gizarteratze-zirkuluak, besteak beste.

25. artikulua. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuaren prozesuen emaitzak.

1. Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuak betetzen dituen prozesuen emaitzak honako hauek izaten ahalko dira: ukitutako pertsonen arteko akordioak, erreparazio komunitarioko akordioak edo gizarteratze konpromisoak, erreparazio plan batean islatu behar direnak.

2. Akordioetan jasotzen diren jarduketak bidezkoak, bideragarriak eta proportzionalak izanen dira, eta alderdi guztiek ados daudela adierazi beharko dute askatasunez eta informatuak izan ondoren.

3. Erreparazio nahikotzat jo daiteke, alderdiek hala adosten badute, hitz egiteko topaketaren edukiaren garapena, itzulketa, erreparazioa, kalteordaina, zerbitzuak ematea, boluntario-lana egitea, tratamendua jasotzea, barkamena eskatzea, egitateak aitortzea eta alderdiek egokitzen jotzen dituzten beste batzuk.

4. Ahal den neurrian, akordioak alderdien ideietan oinarritu behar dira. Bideratzaileek alderdien akordioetan esku hartuko dute soil-soilik haiek hala eskatzen badiete, edo akordioen alderdi batzuk oso errealistak ez badira edo bidegabekak edo argi eta garbi neurrigabeak badira; kasu horretan, bideratzaileek esku hartzeko arazoak azaldu eta erregistratu beharko dituzte.

5. Prozesu guztiak emaitzari buruzko amaierako txosten batekin bukatuko dira, eta auzitegi barruko prozesuetan fiskalari eta organo judizialei jakinaraziko zaie, betiere legez ezarritako konfidentzialtasuna errespetatuta.

26. artikulua. Jarraipena.

Nafarroako Justizia Errestituratihoaren Zerbitzuak akordioak betetzen direla begiratuko du, eta horren berri emanen die organo judizialei eta fiskalari, hala eskatzen badiote, legez ezarritako konfidentzialtasuna errespetatuz, betiere.

27. artikulua. Zabalkundea.

Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak zabalkunde, prestakuntza eta sensibilizazio lanak egiten ditu justizia errestituratiho ezagutzera emateko.

II. TITULUA

Bitartekaritza sustatzea

28. artikulua. Kontzeptua.

1. Bitartekaritza da desadostasunak konpontzeko tresna bat, edozein dela ere haren izena, zeinetan bi alde edo gehiago beren borondatez

ahalegintzen baitira akordio bat lortzen, bitartekari baten esku-hartzearekin.

29. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Bitartekaritza aplikatzen ahalko da libreki erabakitzen diren gaiak edo aldeek akordiorako proposamenak aurkezten ahal dituzten gaiak oinarri dituzten gatazketan, horretan aplikatzekoa den legeriaz baliatuz.

2. Titulu honetan Nafarroan bitartekaritza sustatzeko neurriak ezartzen dira. Zigor arloko bitartekaritza eta justizia errestauratiboaren gaineko teknika titulu honen aplikazio-eremutik kanpo daude.

30. artikulua. Sustapen neurriak.

Nafarroako Gobernuak bitartekaritza eta desadostasunak konpontzeko beste bide egoki batzuk garatzea sustatuko du informazioa eskura jarritz, kasu jakin batzuetan doako bitartekaritzako eskubidea bermatuz, hitzarmenak izenpetuz, dirulaguntzak emanez, prestakuntza eta zabalkunde jarduerak eginez eta egokia den beste edozein neurri erabiliz.

31. artikulua. Informazioa.

Nafarroako Gobernuak bermatuko du organo jurisdikzionalen eta herritarren eskura jarriko dela bitartekaritzari buruzko informazioa, prozesu judicialaren alternatiba gisa.

32. artikulua. Herritarren artean zabaltzea.

Nafarroako Gobernuak bitartekaritzari buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio jardunaldiak eta ekintzak egingen ditu aldizka eragile juridikoentzat eta herritarrentzat oro har, garrantzia berezia emanez lurralde-ekitatearen printzipioari.

33. artikulua. Prestakuntzaren sustapena.

1. Justiziaren arloko eskumena duen departamentuak, bitartekariekin eta bitartekaritza-erakundeekin elkarlanean, bitartekarien hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia sustatuko du.

2. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta entitateen bi urteko kalitate planean ezarritako prestakuntza-jarduerak egin beharko dituzte.

34. artikulua. Bitartekarien eta bitartekaritza-erakundeen lanaren kalitatea sustatzea.

1. Nafarroako Gobernuak esparru orokor bat landuko du Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzeko, eta bitartekaritzaren arloko jokabide-kode bat ere landuko du.

2. Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan inskribatutako pertsonen eta erakundeek bitartekaritza-prozesuen faseen esparru orokorra bete beharko dute, bai eta foru lege honen arau-garapenean ezarriko den jokabide kodea ere.

35. artikulua. Funtzionamendu irizpideak.

Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritza arautuko da haren kontratuetan, hitzarmenetan eta protokoloetan xedatutakoaren arabera, eta horiek osatuko dituzte indarreko legerian jasotako printzipio gidariak.

36. artikulua. Baterako bitartekaritza.

1. Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritza prozesuetan, diziplina desberdinetako profesionalen arteko baterako bitartekaritza lehenetsiko da, hori gomendatzen duten arrazoi teknikoak daudenean, ezaugarri familiar, psikologiko eta sozial garrantzitsuei erantzuteko.

2. Kasu horietan, Kalitate Planak ezarriko du zerikusia duten profesionalen arteko baterako koordinazio eta prestakuntza sistema, eta nahitaez bete beharrekoa izanen da Nafarroako Bitartekaritza Entitateen Erregistroan izena emandako entitate guztientzat.

37. artikulua. Kalitatearen bermea.

Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak bermatuko du Nafarroako Gobernuak finantzatutako bitartekaritzaren kalitatea, eta horretarako, zerbitzu hori ematen duten bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak ikuskatuko ditu eta Kalitate Planean zehaztutako ekintzak gauzatu.

38. artikulua. Bitartekaritza-erakundeak.

1. Nafarroako Gobernuak zainduko du Nafarroan jarduten duten bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak, beren jarduerak garatzean, errespetatzen dituztela bitartekaritzaren printzipioak, hots, estatuko legerian eta foru-lege honetan ezarritakoak, dagozkien arau erregulatuak ezartzen duten moduan.

2. Ildo horretatik, Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa ezarriko da. Erregistroa borondatezkoa izanen da, eta informazioa ematea izanen du helburu. Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak kudeatuko du.

39. artikulua. Kalitate Zigilua.

1. Nafarroan erregistratutako bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak bitartekaritzako kalitate zigilua eskuratzen ahalko dute, ezartzen diren jokabide-kodeekiko atxikimendua bermatzeko.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeek kalitate zigilua lortzeko betebeharrak eta prozedura, hala eskatzen badute eta kalitate irizpide berezi batzuk betetzen badituzte.

3. Bitartekaritzaren kalitatea neurtzeko, kontuan hartuko da ea beren gain hartzen eta betetzen dituzten Kalitate Planean zehaztutako jokabide-kodeak eta prestakuntza espezifikoko eskakizunak.

4. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroak Kalitate Zigilu hori duten pertsonen eta erakundeen berri emanen du.

40. artikulua. Lanbide-elkargoak.

1. Nafarroako Gobernuak sustatuko du lanbide-elkargoak arlo horretan aritzea, kontuan hartuta bitartekaritzaren garapenean duten garrantzi berezia, esperientzia eta ospe aitortua.

2. Ildo horretan, laguntza emanen zaie bitartekari eta bitartekaritza-erakunde gisa onartuak izatea eskatzen duten eta baldintzak betetzen dituzten lanbide-elkargoei, izaera hori aitortuak.

41. artikulua. Doako bitartekaritza.

1. Nafarroako Gobernuak bermatuko die doako bitartekaritza izateko eskubidea, auzitegikoa nahiz auzitegiz kanpoko, hala eskatzen duten pertsona fisiko eta juridikoei, doako bitartekaritzarako eskubidearen onuradun izateko irizpideak eta baldintzak betetzen badituzte, foru lege honen erregelamendu bidezko garapenean ezartzen diren baldintzetan. Nolanahi ere, doako bitartekaritzarako eskubidea izanen dute doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun izateko baldintzak betetzen dituztenek.

2. Nafarroako Gobernuak programa espezifikoak gauzatzen ahalko ditu erabiltzaileen mesedetan, eta horietan bitartekaritzari buruzko informazio saioa dohainik eskainiko dira, edo zenbait gatazkaren auzitegi barruko nahiz kanpoko bitartekaritza prozedura doakoa izanen da osotara edo zati batean.

42. artikulua. Bitartekaritza administratiboa eta administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenakoa sustatzea.

Nafarroako Gobernuak beharrezkoak diren neurriak bultzatuko ditu bitartekaritza sustatzeko administrazioarekiko auzien prozeduretan eta bere eskumeneko administrazio-prozeduretan, administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian eta aplikatzekoa den gainerako legerian ezarritakoarekin bat.

43. artikulua. Bitartekaritza administratiboa sustatzeko hitzarmenak.

Lankidetzahitzarmenak egiten ahalko dira toki erakundeekin, Nafarroako Administrazio Auzitegiarekin eta Nafarroako Arartekoarekin, beren eskumenen esparruan bitartekaritza sustatzeko.

III. TITULUA

Jardunbide errestituratio komunitarioak

44. artikulua. Definizioa.

Jardunbide errestituratio komunitarioak judizializatu gabeko gatazkak prebenitzeko eta konpontzeko tresnak dira, bai eta gizarte-kohesioa sustatzekoak ere, helburu dutenak konfiantzazko, errespetuzko eta zaintzako baldintza kolektiboak sortzea, sor daitezkeen gatazkak komunitateak berak kudea ditzan hasierako faseetan eta modu espontaneoan.

45. artikulua. Aplikazio-eremua.

Jardunbide errestituratio komunitarioak prozedura judizialek kanpo garatzen dira, eta ez dute ondorio juridiko loteslerik izan nahi.

Jardunbide errestituratioak edozein esparru sozialetan egiten ahalko dira, horren barne direla familia, auzoa, eskola, osasuna, kontsumoa, antolakundeak eta espetxe arlokoa, besteak beste.

46. artikulua. Printzipioak.

Atariko Tituluan bildutako printzipioez gain, jardunbide errestituratio komunitarioek honako printzipio hauek betetzen dituzte:

a) Herritarren parte-hartzea: herritarren parte-hartze solidarioa sustatuko da boluntarioraren formulen bidez, bideratzaile profesionalen parte-hartzea baztertu gabe.

b) Gatazka sozialak prebenitzea eta konpontzea: prozesuen helburua izanen da gatazka sozialak prebenitzea eta konpontzea, baita ikuspegi desberdinak eztabaidatzea ere premia sozialemu aurre egiteko modu onenari buruz.

c) Gizarte-kohesioa handitzea: prozesuen helburua izanen da erantzukizun partekatuaen ideia eta komunitate zibikoko kide izatearena indartzea, aniztasunari eta kulturartekotasunari ikuspegi positibotik begiratuta.

47. artikulua. Jardunbide errestituratio komunitarioak sustatzea.

1. Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak jardunbide errestituratio komunitarioak eskainiko dituen sare bat sortzea sustatuko du, horretarako ezarritako dirulaguntzen deialdi

baten bidez, bai eta gizarte-ekimeneko entitateekin lankidetzan aritzeko beste tresna batzuen bidez ere.

2. Arreta berezia eskainiko zaio lurralde-ekitateari, eta gatazkak konpontzeko gune komunitarioak ezarriko dira landa-eremuetan.

3. Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak Nafarroako Sare Errestauratiboa sortuko du, non jardunbide errestituratioak eskaintzen dituzten entitateek aukera izanen duten parte hartu eta beren esperientziak partekatzeke eta elkarrengandik ikasteko.

48. artikulua. Jardunbide errestituratioetan boluntarioak areagotzeko neurriak.

Boluntariotza sustatzeko, Komunitateko Agente Errestauratiboaren figura sortuko da —haren ezaugarriak erregelamenduz zehaztuko dira— eta hitzarmenak adostuko dira dauden boluntariotzako entitateekin, Nafarroako Boluntariotzari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legeak ezartzen duenaren arabera.

49. artikulua. Jardunbide errestituratioetako prestakuntza sustatzeko neurriak.

1. Jardunbide errestituratioetoi buruzko ikastaro espezifikoa egitea sustatuko da, herritarrei oro har, esku-hartze sozialeko profesionalei eta beste diziplina batzuetako profesionalei zuzenduak.

2. Nafarroako Gobernuak, orobat, gatazken prebentzioa sustatuko du, ikastetxeetako programazio didaktikoetan sartuz berdintasunerako hezkuntzarekin, bakearekin, indarkeria ezarekin eta gatazken ebazpen baketsuarekin lotutako edukiak.

50. artikulua. Jardunbide errestituratioen programak eta teknikak.

1. Aurreko definizioarekin eta printzipioekin bat datorren edozein programa edo teknika ezartzen ahalko da.

2. Honako hauek sustatuko dira Nafarroako Foru Komunitatean:

a) Bitartekaritza-programak eta beste jardunbide errestituratio batzuk txertatzea familiarri sostengua emateko jarduketan artean, harrera- eta adopzio-prozesuak barne.

b) Hezkuntzaren eremuan gatazkak prebenitu eta kudeatzeko jardunbide errestituratioen programak.

c) Judizializatu gabeko gorroto-intzidentek zuzentzeko jardunbide errestituratioen programak.

d) Bitartekaritza sare komunitarioak auzotan eta herrietan.

e) Hausnarketarako eta gatazkak konpontzeko gune komunitarioek pertsona talde handiek parte hartzeko moduko teknikak erabiltzen ahalko dituzte, hala nola elkarrizketa-zirkuluak, foro irekiak edo ezartzen diren beste batzuk.

f) Entitate, programa edo baliabide bat ikuspegi errestituratioara egokitzea, hura osatzen dutenen artean konfiantza, errespetua eta kohesioa sortuz.

IV. TITULUA

Antolaketa administratiboa Nafarroako Foru Komunitatean

51. artikulua. Nafarroako Gobernuaren jarduna.

Nafarroako Gobernuak, justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuaren bitartez, eginkizun hauek izanen ditu:

a) Bultzatu, antolatu eta gainbegiratzea Nafarroako Justizia Errestauratiboaren Zerbitzua, auzitegi barruko bitartekaritza sustatzeko neurriak eta jardunbide errestituratio komunitarioen programak.

b) Behar diren neurriak hartzea bermatzeko justizia errestituratioetako, bitartekaritza eta jardunbide errestituratioetako zerbitzuak, programak eta prozesuak, bakoitza bere izaera bereziaren arabera, kalitate homogeneoak direla Nafarroako Foru Komunitate osoan, lurralde-kohesioaren eta berdintasunaren printzipioak betetze aldera.

c) Onestea Nafarroako Justizia Errestauratiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestituratioak sustatzeko lau urteko plan estrategikoa, eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea, hark bere iritzia eman dezan.

d) Onestea Justizia Errestauratiboaren, bitartekaritza eta jardunbide errestituratioen bi urteko Kalitate Plana.

e) Foru Komunitateko agintari judizialei eta operadore juridikoei laguntzea auzitegi barruko bitartekaritza eta justizia errestituratioetako zerbitzuak benetan abian jartzen.

f) Departamentuen arteko koordinazio orokorrerako eta zeharkako koordinaziorako irizpideak eta ereduak ezartzea beharrezkoa denean, bizikidetzan hezteko plan eta proiektuetako hezkuntza-ekintzen koordinaziorakoak barne.

g) Nafarroako Bitartekaritza Erregistroa kudeatzea eta etengabe eguneratzen dela gainbegiratzea.

h) Bitartekaritzako Kalitate Zigilua ematea, erregelamendu bidez ezarriko diren betekizunen arabera.

i) Justizia errestitiboko, bitartekaritzako eta jardunbide errestitiboko zerbitzuen jardueren gaineko datuak biltzea, helburu estatistikoz, eta emaitzak argitaratzea.

j) Arlo horietan jardunbide egokien protokoloak egin daitezzen sustatzea, eta horietan diharduten personak eta entitateak protokolo horiei atxikitzea sustatzea.

k) Justizia errestitiboari, bitartekaritza eta jardunbide errestitiboari buruzko zabalkunde-eta prestakuntza-programak bultzatu eta garatzea, profesionali eta langile boluntarioei zuzendutakoak, foru-lurralde osoan, berdintasuneko eta lurralde-kohesioa irizpideei jarraikiz.

l) Ikerketa eta azterketa sustatzea justizia errestitiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestitiboaren arloan.

m) Arlo horietan ezagutzak, esperientziak eta berrikuntzak truka daitezzen sustatzea, eta etengabeko prestakuntzarako eta prestakuntza espezializaturako ikastaroak, jardunaldiak edo mintegiak sustatu eta antolatzea.

n) Foru-lege hau garatzeko hartu beharreko neurriak hartzea.

52. artikulua. Jarduketan koordinazioa.

1. Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak jarduerak koordinatuko ditu zeresana duten entitateekin, Nafarroako Justizia Kontseiluan lantalde hauek sortuz eta bultzatuz:

- Justizia Errestitiboaren Batzordea.
- Bitartekaritza Batzordea.
- Jardunbide Errestitiboaren Batzordea.

2. Departamentu horrek beste departamentu, zerbitzu edo plan batzuekin koordinatzeko mekanismoak ezarriko ditu, baldin eta horien jarduketek lotura badute justizia errestitiboaren, bitartekaritzaren eta jardunbide errestitiboaren printzipio eta helburuekin.

53. artikulua. Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak jarduna.

Hona hemen Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak eginkizunak:

a) Bitartekaritza prozesu zehatz bat egin behar duen bitartekari bat izendatzea, erakundekoa, izendatzeko prozesuan gardentasuna bermatuta.

b) Beren esparruan diharduten bitartekariak identitatea ezagutaraztea, eta horiek bitartekaritzaren arloan duten prestakuntza, espezialitatea eta esperientzia jakinaraztea.

c) Bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak dagokienez, diziplina-eginkizuna betetzea, eta zaintzea legeek, protokoloak eta jokabide-kodeak ezartzen dizkieten betebeharrak errespetatzen dituztela.

d) Bitartekaritzaren erabilera sustatzea eta zabaltzea, eta erabiltzaileei doako informazioa ematea bitartekaritzaren ezaugarriak, printzipioak eta abantailak buruz.

e) Saiok, jardunaldiak edo prestakuntza-ikastaroak antolatzea bitartekariak eta bitartekaritza-erakundeak.

f) Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuari igortzea bitartekaritza-jarduerak buruzko kekek edo salaketak, bai eta jarritako diziplina-zehapenak ere.

g) Justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak eskatzen dion informazio guztia bidaltzea, helburu estatistikoetarako, betiere konfidentzialtasun-betebeharrak eta datu pertsonalak babesteko araudia errespetatuz.

h) Erakundeak bitartekaritzaren arloan egiten dituen jardueren urteko memoria egitea, justiziaren arloko eskumena duen departamentura bidaltzeko.

i) Bitartekaritza espedienteak gordetzea eta zaintzea.

Lehen xedapen gehigarria. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Ahalmena emanen zaio Nafarroako Gobernuari foru-lege honetan xedatutakoa garatzeko behar diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Foru-lege hau indarrean jarri eta urtebeteko epean, gehienez ere, honako hauek onetsi beharko ditu Nafarroako Gobernuak:

– Nafarroako Bitartekaritza Erregistroaren sorrera eta funtzionamendu-arauak.

– Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsona bitartekariak eta Bitartekaritza Erakundeak Kalitate Zigilua lortzeko bete beharreko baldintzak.

– Nafarroako Foru Komunitatean gauzatzen diren bitartekaritza prozesuen faseak arautzeko esparru orokorra, beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta entitateen zuzendua, edo, hala badagokio, horri atxikitzeko nahia dutenei, erregistroan izena eman ez badute ere.

– Beren borondatez Nafarroako Bitartekaritza Erregistroan izena emandako pertsonen eta entitateen zuzendutako bitartekaritzako jokabide-kodea, zeinak barne hartuko duen, beste neurri batzuen artean, kodea urratuz gero bitartekaritzako kalitate zigilua galtzeko eta Nafarroako Bitartekaritza Erregistrotik kanporatua izateko aukera.

– Komunitateko agente errestitatibo izaera lortzeko eta Nafarroako Sare Errestitatiboaren parte izateko betekizunak.

Bigarren xedapen gehigarria. Plan estrategikoa eta kalitate plana.

Lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamendu bidezko garapena onetsi eta urte-

beteko epean, gehienez ere, justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak justizia errestitatiboa, bitartekaritza eta jardunbide errestitatiboak sustatzeko lehen plan estrategikoa onetsi beharko du, bai eta foru-lege honetan ezarritako Kalitate Plana ere.

Plan horiek egiteko beharrezkoak diren lantaldeak eratuko ditu, Nafarroako Justizia Kontseiluaren esparruan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Dirulaguntzen deialdia.

Foru-lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, gehienez ere, justiziaren arloko eskumenak dituen departamentuak dirulaguntzak emateko deialdi baten oinarriak onetsiko ditu, horren bidez gizarte-kohesiorako jardunbide errestitatiboak sustatzeko.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

10-22/LEY-00020. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren Foru Legea

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Helburuak.
3. artikulua. Definizioak.
4. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak kanal laburrean merkaturatzeko baldintzak.
5. artikulua. Elikagaien segurtasunaren eta higienearen erantzukizuna nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburretan.
6. artikulua. Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun- eta higienebaldintzak egokitzea.
7. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzea.

II. kapitulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroa, informazioa eta identifikazioa.

8. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroa.

9. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena ematea.

10. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena eman dutenen betebeharrak.

III. kapitulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburrak identifikatzea eta logotipoak erabiltzeko arauak.

11. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak identifikatzea.

12. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren logotipoa erabiltzeko arauak.

IV. kapitulua. Kontrol ofiziala eta zehapen-araubidea.

13. artikulua. Kontrol ofiziala.

14. artikulua. Zehapen-araubidea.

Xedapen gehigarri bakarra. Osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidak egiteko epea.

Lehen xedapen iragankorra. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroa migratzea.

Bigarren xedapen iragankorra. Azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak arautzen duen Nekazaritzako elikagaiak zuzenean saltzen dituzten operadoreen Nafarroako erroldaren indarraldia.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetutako arauak.

Azken xedapenetako lehena. Garatzeko ahalmena.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Eranskina: nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien giden gutxieneko edukia.

HITZAURREA

I

Elikagaiak era askotako ingurune geografikoe-tan eta klima-baldintzetan ekoizten dira. Horregatik, hainbat eratako nekazaritzako elikagaiak daude, hainbat eratarata ekoizten direnak. Historian, elkarrri estu loturik izan dira lehen sektorea edo ekoizpen-sektorea, gizartea eta landa-eremuetako ekonomia, bai eta ingurumena ere: mendez mende, elikagaiak zuzenean saltzea, dela ustiategi-tan bertan, dela tokiko azoka eta merkatuetan, izan da biztanleria hornitzeko bide nagusia, hiriak ez baitzeuden sobera garaturik, eta ekoizleak zein kontsumitzaileak bata bestearengandik gertu baitzeuden, geografikoki, kulturalki zein sozialki.

XX. mendean, nekazaritza-produktibitatea izugarri handitu zen, eta biztanleria hirigune handietan metatu zen, hein handi batean, landa-eremuetako herritarrek hiriguneetara joan zirelako. Horrek berekin ekarri zuen landa-eremuko herri asko jendez hustea. Aldi berean, elikagaiak banatzeko katea saltoki ertain eta handiak zituzten enpresa askotan antolatu zen, askotariko produktuak eskaintzen zituztenak. Produktu horiek, normalean, banaketa-talde handiak zituzten jabe, zeinek negoziatzeko ahalmen handia baitzuten ekoizleen aurrean.

Lehen sektoreari dagokionez, jarduera antolatu zen, gehienez, produktibitatea areagotzeko eta kostuak murrizteko printzipioak ardatz hartuta. Horren eraginez, landareen nahiz animalia arrazen aniztasuna galdu egin zen. Horrez gain, atomizazio maila handiari eutsi zitzaion; hots, hizpide dugun sektorea nekazaritzako ustiategi txikiz osatuta zegoen.

Ekoizpen- eta banaketa-eredu horiek herritarrek hornitu dituzte egundaino, eraginkortasunez, elikagai osasuntsu eta seguruak emanez. Nolanahi ere, lotura galdu da kontsumitzaileen eta ekoizleen artean; kontsumitzaileak ez daki elikagaiak nondik datozen, tentsioa dago ekoizpen-sistemen eta ingurumenaren artean, eta biodibertsitatea galdu egin da. Horren guztiaren eraginez, ekoizpen-sektorea muturreko ahultasun egoeran dago balio-katean.

Azken urteotan gora egin du gertu ekoiztitako elikagai fresko eta garaikoen kontsumo-eskaerak; eta jakin nahi izaten da zein diren ekoizleak, zer eremutan aritzen diren, zer ekoizpen-sistema erabiltzen duten, eta tokiko arrazak eta barietateak zein diren. Era berean, kontuan izaten da zer interakzio duen nekazaritza-jarduerak ingurumenean, paisaian eta landa-eremuen garapenean.

Beraz, elikagaien banaketa hurbileko salmentaren bidez egiteak, hots, ekonomia-eragile gutxi batzuek esku hartzen dutela, eraginkorki lagun dezake elikakateko desorekak zuzentzen, ustiategi txikien kasuan, bereziki; eta, aldi berean, aukera ematen du kalitatezko produktuak, tokiko espezie eta barietateekin edo sistema tradizionalak erabilita egindakoak, merkatuetan sar daitezten. Hala berean, hizpide dugun jarduerak eraginkorki lagun dezake beste jarduera batzuk garatzen, hala nola elikagaien transformazioa, banaketa, jatetxeak edo nekazaritza-turismoko establezimenduak, horiek guztiek areagotzen baitute nekazaritzako elikagaien inguruko jarduna eta ekonomia nahiz enplegua sortzen dute landa-eremuetan.

II

Europar Batasunean, ez dago arau espezifiko-rik nekazaritzako ustiategiari lotutako merkaturatze-zirkuitu laburrei buruz. Nolanahi ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 25. eta 83. kontuan hartuzkoetan tokiko merkatuak eta hornidura-kate laburrak aipatzen dira (erregelamendu horrek arau batzuk ezartzen ditu Europar Batasuneko estatuek, Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan, prestatu beharreko plan estrategikoentzako laguntzetarako). Hor, kooperazioa bultzatzeko laguntzei dagokionez, zenbait helburu aipatzen dira, besteak beste, nekazariak balio-katean duten posizioa hobetzea eta nekazaritzak gizartearen eskakizunei (elikaduraren eta osasunaren arlokoei) eman beharreko erantzuna. Erreferentzia horiek beroriek arauaren eranskinetan ageri dira, bai eta eragin- eta emaitza-adierazleen zatian ere.

Aipatutako erregelamendu horrek indarrrik gabe utzi du –2023ko urtarrilaren 1etik aurrera– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 (EB) Erregelamendua, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsearen bidez landa-garapenera laguntzeari buruzkoa. Erregelamendu horrek, 2. artikuluan, honela definitzen du banaketa-kate laburra: ekonomia-eragile gutxi batzuek esku hartzen dute bertan, eta esku hartzen duten eragile horiek elkarlanaren arloan, tokiko ekonomia-garapeneraren arloan, eta ekoizpenaren, eraldaketaren eta kontsumoaren arteko lotura geografiko eta sozial hurbilen arloan aritzen dira. Bestetik, 35.2 artikuluan aukera ematen du eragileen elkarlanerako eta sustapenerako laguntzak emateko, banaketa-kate laburrak eta tokiko merkatuak ezartzeari eta gartzeari begira. Nolanahi ere, Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 807/2014 (EB) Erregelamendu

Delegatuak, zeinak aurreko erregelamendua osatzen baitu, laguntza mugatu egiten du ekoizlearen eta kontsumitzaileen artean gehienez ere bitartekari bat duten kateetara.

Ezin ahantzi, era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko azaroaren 21eko 1151/2012 (EB) Erregelamendua, Nekazaritzako Produktuen eta Elikagaien Kalitate-araubideei buruzkoa, zeinetan Batzordeari eskatzen baitzitzaion, 55. artikuluan, txosten bat aurkez ziezaiela Europako Parlamentuari eta Kontseiluari –2013ko urtarrilaren 4an, beranduenez– aztertuta ea egokia den edo ez etiketatze-sistema berria ezartzea tokiko nekazaritza-ekoizpenerako eta salmenta zuzenatarako, lagungarria izan zitekeelakoan ekoizleek beren produktuak merkaturatzeko. Zeregin horri heltzeko, “Local agriculture and short food supply chains” hitzaldia egin zen 2012ko apirilean. Hitzaldi horren ondorioz, Europako Batzordeak honako txosten hau egin zuen 2013an: “Short food supply chains and local food systems in the EU”, zeinetan bildu baitziren gai horren inguruko ideiak eta proposamenak.

Bestalde, aipatu egin behar da zein diren zuzeneko salmentari buruzko salbuespenak elikagaien higieneari eta segurtasunari buruzko Europar Batasuneko legeria zabalean, “Higiene-paketea” deritzon horretan, zeinak honako hauek biltzen baititu, bereziki:

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002 (EE) Erregelamendua, Elikagaiei buruzko legeen printzipio eta betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasuneko Europar Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen dituen.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 852/2004 (EE) Erregelamendua, elikagaien higieneari buruzkoa.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 853/2004 (EE) Erregelamendua, Animalia jatorriko elikagaien higienearako berariazko arauak ezartzen dituen.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 (EB) Erregelamendua, Elikagaien eta pentsuen legedia eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak aplikatzen direla bermatzeko egiten diren kontrol eta beste jarduera ofizialei buruzkoa, erregelamendu hauek aldatzen dituen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 999/2001 (EE), 396/2005 (EE), 1069/2009 (EE), 1107/2009 (EB), 1151/2012 (EB), 652/2014 (EB), 2016/429 (EB)

eta 2016/2031 (EB), Kontseiluaren 1/2005 (EE) eta 1099/2009 (EE), bai eta Kontseiluaren 98/58/EE, 1999/74/EE, 2007/43/EE, 2008/119/EE eta 2008/120/EE zuzentarauak. Halaber, honako hauek indargabetzen ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 854/2004 (EE) eta 882/2004 (EE) erregelamenduak, Kontseiluaren 89/608/EEE, 89/662/EEE, 90/425/EEE, 91/496/EEE, 96/23/EE, 96/93/EE eta 97/78/EE zuzentarauak, eta Kontseiluaren 92/438/EEE Erabakia (kontrol ofizialei buruzko erregelamendua).

Araudi horren aplikazio-eremutik kanpo dago honako hau: ekoizleak lehen mailako produktuen kantitate txikiak zuzenean hornitzea, dela azken kontsumitzaileari, dela azken kontsumitzailea hornituko duten txikizkako tokiko saltokiei. Horrez gain, Europar Batasuneko estatuen esku uzten du, beren zuzenbide nazionalarekin bat, ezar ditzaten jarduera horiek arautuko dituzten arauak, baldin eta bat badatoz Europar Batasuneko legeekin. Arriskuen Analisiaren eta Kontrol-puntu Kritikoaren Sistemari (APPCC) buruzko eskakizunek malguak izan behar dute, egoera guztietan aplikatzeko modua eman behar baitute, baita enpresa txikietan ere, betiere elikagaietan zaindu beharrekoko higiene-helburuak arriskuan jarri gabe. Azkenik, gidak prestatzea, hedatzea eta erabiltzea sustatzen da, Europar Batasunekoak zein nazio mailakoak, bai higiene-jardunbide egokiei buruzkoak, bai APPCC sistemaren printzipioak aplikatzeari buruzkoak. Hala ere, elikagai-enpresek aukerakoa izan behar dute gida horiek erabiltzea.

III

Europako legeriaren antzera, Espainiako legeriak ere ez du garatu nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrei buruzko araurik, ez eta kanal horietarako elikagaien segurtasun espezifikoki buruzko araurik ere, eta hura autonomia-erkidegoen esku utzi du, oinarri hartuta Espainiako Konstituzioak 148.1.7 artikuluan (nekazaritzako eta abeltzaintzako gaiak) eta 148.1.12 artikuluan (barne-azokak) ematen dizkien eskumen eskusiboak. Hala ere, Espainiak, Europar Batasunaren antzera, kanal horietan eragina duten arauen zerrenda bat ezarri du, besteak beste:

– 9/2015 Errege Dekretua, urtarrilaren 16koa, arautzen dituen Europar Batasunak lehen mailako nekazaritza ekoizpenerako higieneari arloan emandako araudia aplikatzeko baldintzak. Zehazki, 4.4 artikuluan xedatzen du ezen nekazariak bete behar dituztela 852/2004 (EE) Erregelamenduan eta 183/2005 (EE) Erregelamenduan, zein den aplikatzekoa, ezarritako higiene-betebeharrak.

– 1086/2020 Errege Dekretua, abenduaren 9koa, elikagaien ekoizpenaren eta merkatura-tzearen higienearen arloan Europar Batasunaren xedapenak aplikatzeko baldintza jakin batzuk arautzen eta malgutzen dituena eta haren aplikazio-eremutik kanpoko jarduerak arautzen dituena. Europar Batasuneko higiene-paketearen erregelamenduek Europar Batasuneko estatuei aukera ematen dietenez salbuespenak, egokitzapenak edo malgutzeak ezartzeko, errege dekretu horrek aplikatu egin ditu establezimendu eta produktu mota jakin batzuetan. Errege dekretuak, bestalde, erregelamendu horien aplikazio-eremutik kanpo utzitako zenbait jarduera arautu ditu, eta EBko araudia Espainian behar bezala aplikatzen laguntzen duten neurriak ezarri ditu. Horrela, besteak beste, tratamendu berezia ematen dio elikagai tradizionalen ekoizpenari edo hiltegi txikien funtzionamenduari; etxeko eta ehizan harrapatutako hegaziak hiltegitik kanpo hiltzeko baimena ematen du; arautzen du zer baldintza bete behar diren ekoizleak zuzenean hornitu diezazkion, azken kontsumitzaileari edo txikizka saltzen duten tokiko saltokiei, ustiatzearen hildako animalien haragi kantitate txikiak; ezartzen ditu zuzenean salduko den esne gordinak bete beharreko baldintza batzuk, edo arautzen du zer distantzia egonen den ustiatzearen eta merkatuen edo establezimenduen artean (haragiaren kasuan, distantzia horrek ezin du ehun kilometrotik gorakoa izan, non eta, muga geografiko bereziak dituzten eskualdeetan, agintaritzak eskudunak ez duen hori baino erradio handiagoa baimentzen, autonomia-erkidegoaren barnean, betiere).

Nolanahi ere, eta bat etorrita errege dekretu horren 20. artikuluan adierazitakoarekin, lehen mailako nekazaritza-produktuak ekoizten edo biltzen dituztenek, produktuak zuzenean hornitu nahi badituzte, bete beharko dute 852/2004 (EE) Erregelamenduan eta 9/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa. Era berean, animalia-jatorriko lehen mailako produktuak zuzenean hornitzean, edozein modutan hornitzen direla ere, bete beharko da 852/2004 (EE) Erregelamenduan xedatutakoa, I. eranskinean ezarritakoa, bereziki, 853/2004 (EE) Erregelamendua aplikatu behar zaion zatian.

Azkenik, ezartzen du ezen Elikagaien Seguratasunerako eta Nutriziorako Espainiako Agentziak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioarekin eta gainerako agintaritzak eskudunekin elkarlanean, betekizun espezifikoak ezarriko dituela eta gida batzuk garatuko dituela elikagaien arloko higienari eta osasunari buruzko arauak behar bezala aplikatzen laguntzeko.

– Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrari buruzko otsailaren 18ko 191/2011 Errege Dekretuak 2.2 artikuluan xedatzen du ezen honako establezimendu hauek ez dutela izena emateko betebeharririk: elikagaiak manipulatu, eraldatu, ontziratu, biltegitzen eta zerbitzatu baizik egiten ez duten establezimenduak, taldeei edo azken kontsumitzaileari berari saltzeko edo eskura emateko, etxeko etxe banatuta edo ez, bai eta establezimendu horiek ezaugarri berak dituzten beste establezimendu batzuk hornitzen dituztenean ere, baldin eta hizpide dugun hau jarduera marjinala bada haien jardunean —ekonomiari zein produkzioari dagokionez—, gauzatzen bada tokiko osasun-unitatearen edo osasun-eremuaren esparruan edo, dagokion agintaritzak eskudunak hala zehaztuta, haren ezaugarri edo xede bera duen lurralde-esparruan. Establezimendu horiek izena eman beharko dute horretarako ezarritako erregistro autonomikoetan. Aurretik, alabaina, elikagai-enpresaren operadoreak jakinaren gainean jarri beharko ditu agintaritzak eskudunak, establezimendua non kokatzen den, horren arabera.

IV

Apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea argitaratuta, Nafarroa autonomia aitzindaria izan zen, nazio mailan, haren bidez arautu baitzuen nekazaritza-eta abeltzaintza-ustiatzei lotutako produktuen zuzeneko salmenta. Foru-lege horren helburu nagusia zen ustiatze horien errenta, eta, horrenbestez, lehen sektorearen bideragarritasuna hobetzea.

Hala ere, arau horrek mugak jartzen ditu zenbait alderditan eta, hortaz, ez du lortu merkatura-tze-zirkuitu laburrak eta zuzenak bultzatzea. Esaterako, arau horrek exijitzen du ezen ustiatzearen bertan lortutako lehengaiak baizik ez daitezela manipulatu eta eraldatu, eta ustiatzearen prestazioak bertakoak izan daitezela. Horrez gain, honek definitzen du zuzeneko salmenta: halako merkataritza jarduera non bitartekorik ez dagoen ekoizlearen edo eraldatzailearen eta kontsumitzailearen artean.

Nekazaritzako elikagaien trazabilitatea eta elikadura-segurtasuna arautzeari dagokionez, nekazaritzako ustiatzeari lotutako artisau-enpresetara mugatzen da, baina arauak ez ditu figura horiek definitzen. Bestalde, trazabilitatea exijitzen zaie produktuetan sartuko diren edo sar daitezkeen osagai, lehengai, gehigarri eta substantzia guztiei, eta hori, nolabait, ez dator bat horiek guztiak ustiatzei bertatik etortzeko eskakizunarekin.

Era berean, zuzeneko salmentarako hiru modalitate definitzen dira, eta horietako bat 8/2010 Foru Legearen 4. artikuluko definizioaren aurkakoa da, bitartekari batek esku-hartzeko aukera ematen baitu. Beste modalitate batek aukera ematen du Europar Batasun osoan osasun-baimenarekin saltzeko, baina ez da zehazten jarduera hori zer baldintzatan eta zer bitartekarekin gauzatuko den, eta kontraesanean dago 10. artikuluko nekazaritzako elikagaien artisau-enpresei ezartzen dien eskakizunarekin, ekoizpen-zentrotik gertu merkaturatzeko exijitzen baitie. Hiru salmenta-modalitateek ezaugarri komunak dituzte: Europako araudiak exijitutako ekipamendua eta funtzionamendua izatea, higijene-printzipio orokorrak betetzen direla eta irizpide mikrobiologikoak errespetatzen direla bermatzea, eta arriskuak kontrolatzeko sistema bat edo, hala badagokio, higijene-jardunbideen gida bat abian jartzea.

Nafarroako arauak ezartzen du nekazaritzako elikagaien artisau-enpresek izena eman dezaketela edo ekoizle eta prestatzaileen errola batean (salmenta zuzena denean edo osasun-erregistrotik salbuetsita dagoenean) edo nekazaritzako elikagaien industriaren erregistroan (beren produktuak merkaturatzen dituztenean eta osasun-erregistroa dutenean). Horrek galarazten du informazio guztia modu bateratuan tratatzea. Jardunbide egokien gidei buruzko artikuluan, mugatzen du zer jarduera baino ezin daitezkeen egin ustiategiaren: zukuak, marmeladak eta fruten eta barazkien kontserrak egitea; sagardoa, ardoa, likoreak eta patarrak egitea; haragi-produktuak egitea; esnekiak egitea; ezta eta produktu eratorriak manipulatzeko eta egitea; landare-espezieak manipulatzeko, elikaduran erabiltzeko infusioetarako eta elikaduran erabiltzeko eragile aromatiko gisa; oliba-olio birjina estra egitea; eta arrautzak saltzea.

Azkenik, 8/2010 Foru Legeak aipatzen du, zenbait artikulutan aipatu ere, erregelamenduz gartuko dela, eta horixe egin zuen, hain zuzen ere, azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak. Eduki urria du, eta haren berrikuntza nagusia da Nafarroako zuzeneko salmentako nekazaritzako elikagaien operadoreen errola sortzea eta kudeatzea. Errola horretan izena eman beharko dute bai Nafarroako nekazaritza-ustiategiaren erregistroan izena emanda duten nekazaritza-ustiategietatik zuzeneko salmentan merkaturatzea erabakitzen duten horiek, bai nekazaritza-ustiategi berezkoa duten Nafarroako nekazaritzako elikagaien artisau-enpresei erregistroan izena emanda duten entitateek. 8. artikuluko, jarduera aitortzeari buruzkoak, aukera ematen die nekazaritzako elikagaien artisau-enpresei Internet bidez eta EBkoak ez diren herrialdeetan merkaturatzeko; hori ez dator

bat 8/2010 Foru Legearekin, gertuko lurralde-eremua hartzen baitu. "Higijene-paketeari" dagokionez, foru-dekretuaren xedapen bakarrak adierazten du ezen zuzeneko salmentaren eroldan dauden operadoreek higijene arloko jardunbide zuzenen gidak, Espainiakoak nahiz Europar Batasunekoak, erabiliko dituztela, baldin eta 852/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen badituzte; ez du besterik esaten.

Kontuan hartuta aipatutako foru-araudi guztiak eraginkortasun mugatua duela bere helburuak betetzeko, Nafarroako Parlamentuak, 2018ko azaroaren 19ko saioan, mozio bat onetsi zuen. Mozio horretan, Nafarroako Gobernuari eskatu zion foru-dekretu bat gara zezala, malgutu zitezkeen zuzeneko salmentan edo merkaturatze-zirkuitu laburrean aritzen diren nekazaritza-ustiategi txikiak bete beharreko higijene- eta osasun-baldintzak, bai lehen mailako ekoizpenetan, baita nekazaritzako elikagaiak eraldatzean eta merkaturatzean ere. Nolanahi ere, 2019an COVID-19a agertu zen; 2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia deklaratu zuen; horren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu zuen, eta denboran barrena arau ugari eman ziren. Horregatik guztiatik, foru-dekretuaren proiektuaren izapidetzea eten egin zen. Proiektu horren zirriborroak, besteak beste, honako hauek ezarri zituen:

a) Aplikazio-eremua, zeina ustiategi txikietara mugatu baitzen, zehazki, jarduera nagusia elikagaien lehen mailako ekoizpena zuten eta lehen-mailako beren produktuen kantitate txikiak zuzenean azken kontsumitzaileari edo merkaturatzeko kanal laburren bitartez hornitzen dituzten ustiategi horietara; ezaugarri tradizionalak dituzten elikagaien ekoizleak, eta nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak, elikagaien kantitate mugatuak eraldatzen, prestatzen, ontziratzen edo merkaturatzen dituztenak, zuzenean azken kontsumitzaileari edo merkaturatzeko kanal laburren bitartez.

b) Definizio hauek: lehen mailako ekoizpena eta produktuak, ezaugarri tradizionalak dituzten elikagaiak, tokiko edo hurbileko merkaturatzea, zuzeneko salmenta eta zirkuitu laburreko salmenta. Gainerakoan, Espainiako eta Europako arautan dauden definizioei heltzen die.

c) Produktuak ekoizteko, egiteko, eraldatzeko eta merkaturatzeko etapetan bete beharko liratekeen baldintza eta betekizun higieniko eta sanitarioen egokitzapena edo malgutzeko, sektore bakoitzerako berariazko arau teknikoak ezarrita.

d) Nekazaritzako elikagaien enpresek, jarduerari ekin aurretik, Nafarroako elikagai-enpresei

osasan-erregistroari jakinarazpen bat aurkezteko betebeharra.

Merkaturatutako elikagaien kantitate txikiei dagokienez, foru-dekretuaren proiektuak adierazten zuen geroago zehaztuko zirela, sektoreka, hura garatzeko arauetan.

V

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarriari buruzko 2030 Agenda onartu zuen. Agenda horrek 17 helburu ditu, munduan bizitza modu jasangarri, inklusibo eta bidezkoan hobetzeko.

Horrekin bat etorrira, 2019ko abenduaren 11n, Batzordeak Itun Berdea aurkeztu zuen, Europa 2050ean kontinente neutro bihurtzeko ibilbide-orria, alegia, eta zenbait ekintza zehaztu zituen klima-aldaketaren eta ingurunearen degradazioaren aurka borrokatzeko, ekonomia jasangarria bultzatzeko eta baliabideen erabilera eraginkorra bultzatzeko. Bide horretan, 2020ko maiatzaren 20an, "Baserritik mahaira" estrategia aurkeztu zen. Estrategia horrek zenbait neurri ezarri zituen, honako helburu hauek betetzeko asmoz: elikagai osasungarriak, arrazoizko prezioan saldutakoak eta jasangarriak bermatzea; lehen sektoreak are ekarpen handiagoa egin dezala klima-aldaketari aurre egitearen, ingurumena babestearen eta biodibertsitatea zaintzearen arloetan, eta nekazaritzaren lehiakortasuna nahiz ekonomia-etekin bidezkoa bermatzea, horiek guztiak gakoak baitira Europako elikadura-sistemaren trantsizioa lortzeko. Estrategian aurreikusitako helburuak bat datoz 2021/2115 (EB) Erregelamendukoekin, hots, Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan Europar Batasuneko estatuak egin behar dituzten plan estrategikoei buruzko erregelamendukoekin.

Araudi, plan eta estrategia horiek guztiek aukera berriak ematen dizkiete elikaduraren balio-katean esku hartzen duten guztiei, eta aukera ematen dute, bereziki, elikagaiak zuzenean saltzen dituzten nekazarien posizioa hobetzeko, hurbileko eta gertuko merkataritza sustatzen baitute. Zeregin garrantzitsua betetzen dute landa-eremuetan, askotan despopulazioa pairatzen dutenetan, laguntzen baitute deslokalizatzen ez diren tokiko ekonomia eta enplegua sortzen, eta sinergiak sortzen baitituzte beste sektore batzuekin, hala nola landa-turismoarekin edo nekazaritza-turismoarekin eta kultura-turismoarekin, eta, aldi berean, murriztu egiten dira salgaien garraioak sortutako berotegi-efektuko gasen isurtzeak.

Bestalde, eta munduko eta Europako joerekin bat etorrira, azken urteotan kontzientziazio eta

erantzukizun handiagoa sortu da kontsumitzaileen artean, besteak beste honako alderdi hauei begiratzen baitiete: elikagaien osasuna eta segurtasuna, produktuen kalitatea eta trazabilitatea, animalien jasangarritasuna eta ongizatea, klima eta ingurumena, energia aurrezte eta energia berriztagarrien erabilera, hondakinak baliaraztea eta tratatzea, eta elikagaiak alferrik galtzea. Era berean, badago tokiko eta sasoiko produktu freskoak kontsumitzeko joera edo eskaria ere, gero eta nabarmenagoa dena, non ekoizlearen eta bezeroen arteko zuzeneko kontaktua balioesten den, uste baita produktua nork ekoizten duen jakinda produktuaren kalitatea eta jatorria ezagutzen dela, eta, banaketa-kate handietako produktu estandarizatuenean aldean, produktu bakanak, bereziak eta nortasunekoak bilatzen dira.

Osasun-larrialdiko egoerek ere, hala nola COVID-19ak sortutakoak, agerian utzi dute elikagaiak ekoiztea eta hornitzea funtsezko jarduerak direla, oso garrantzitsuak, herritar guztientzat. Gertaera horien ondorioz, halaber, indartu egin da online salmenta. Online salmenta pandemiaren aurretik ere bazegoen, baina indar handiz egin du gora konfinamendu-aldiek hauspoturik, baita familia askok, osasun arrazoiengatik, etxean bakarturik egon behar izan dutenean eta ohiko bideak aldi batez itxi zirenean, hala nola ostalaritza, jatetxeak eta kafetegiak (HORECA, gaztelaniazko akronimoa) eta udal-merkatuak.

Kontuan izanik hamar urte baino gehiago igaro direla 8/2010 Foru Legea argitaratu zenetik, elikagaien ekoizpen- eta merkaturatze-sistematan aurrerapenak izan direla, eta EBk garapen jasangarriarekin dituen konpromisoak eta gizartearen eskaera berriak ere aintzat harturik, komeni da aipatutako foru-lege hori eta hura garatzeko araudia indargabetzea, bai eta beste bat ematea ere, egungo joerekin bat datorrena.

VI

Foru-lege honek lau kapitulu ditu: lehena xedapen orokorrei buruzkoa da; bigarrena, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistro berriari buruzkoa; hirugarrena, merkaturatzeko metodo hori identifikatzeko logotipo bat sortzeari buruzkoa, eta laugarrena, kontrol ofizialari eta zehapen-araubideari buruzkoa.

I. kapituluak foru-legearen oinarrizko alderdiak arautzen ditu, hala nola lortu nahi diren xedea eta helburuak. Izan ere, zuzeneko eta hurbileko salmenta sustatuta, zeinetan nekazariaren eta azken kontsumitzailearen arteko harremana funtsezkoa baita, helburu hauek bete nahi dira: nekazarien eta abeltzainen errenta hobetzea, landa-eremue-

tako ekonomia bultzatzea, ingurumenarekin lotura duten alderdietan laguntzea eta herritarrak ohar- tzea lehen sektoreak elikagai seguruak, jasanga- rriak eta kalitatezkoak ematen dituela.

Arauk aplikazio-eremua zein den hobeto uler- tzen laguntzen duten zenbait kontzeptu ezarri ditu, argi eta zehatz ezarri ere: lehen mailako ekoizpe- na, ekoizpen eraldatua, lehen mailako osagaia eta merkaturatzeko kanal laburra. Arauk zehazten du, era berean, zer baldintza bete behar diren jo dadin nekazaritzako merkataritza-jarduera gertu- koa dela; eta zuzeneko salmenta eta hurbileko salmenta bereizten ditu (zuzeneko salmenta: nekazaria edota abeltzaina eta kontsumitzailea kontaktuan daudena; hurbileko salmenta: bitarte- kari bat bakarria izan dezakeena bi aldean artean).

Aipatutakoez gain, I. kapituluaren jorratzen dira elikagaien osasun-eta higiene-baldintzekin lotura duten zenbait alderdi. Kasu honetan, agintari eskudunak behartuta daude hizpide dugun merkaturatze motara egokitutako jardunbide ego- kien gidak egitera, nolabaiteko malgutasuna emanda, baina betiere Europar Batasuneko, Espainiako eta autonomia-erkidegoetako arauetan baimendutako salbuespenen esparruan. Hala ere, elikagaien segurtasunaren eta higienearen eran- tzule da —ezin bestela izan— kontsumitzaileari saltzen dion ekoizlea edo bitartekaria.

Azkenik, arauak aukera ematen dio Nafarroako Gobernuari susta dezan nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburra, sustapen- eta ikus- garritasun-kanpainak eginda, bai eta dagozkion gidak prestatzeko kanpainak eginda ere. Horrek ekarriko du hizpide dugun jarduera indartzea eta herritarrek haren konfiantza izan eta balioets dezatela.

Foru-lege honen II. kapituluak erregistro berri bat ezartzen eta arautzen du, zeinean izena eman beharko dute nekazaritzako elikagaiak merkatura- tzeko Nafarroako kanal laburren bidez jarduten duten horiek. Gaian eskumena duen departamen- tuak kudeatuko du; ordezkatu du indarrean dagoen Nekazaritzako Elikagaiak Zuzenean Sal- tzen dituzten Operadoreen Nafarroako Errolda, eta funtsezko tresna izanen da Nafarroako Gober- nuak gauza ditzan hartan izena eman duten ope- radoreak dinamizatze eta sustatzeko jarduerak, eta informazioa lortu ahal izateko, zuzen-zuzene- an lortu ere, merkaturatutako ekoizpenaren bolu- menari eta motari buruz; horrela, Foru Administra- zioak hobeto kudeatu eta bultzatu ahal izanen ditu. Ofiziala eta publikoa izanen da, eta informa- zio eguneratua izanen du. Hori dela eta, arauan ezarri da zer baldintza bete behar diren hartan izena emateko, zer betebeharrak izanen dituzten ber-

tan izena eman dutenek, eta zer arrazoiengatik ezabatu daitekeen izena erregistrotik.

III. kapituluak Nafarroako Gobernuak behartzen du bereizgarri edo logotipo bat garatzera, azken kontsumitzaileak identifikatu ditzan eta jakin dezan noiz erabili diren merkaturatzeko kanal laburrak. Establezimenduetan eta produktuetan erabili ahal izanen da, merkaturatzen dauden beste logotipo batzuekin batera, baita paketatutako produktuetan ere. Zehazten da, era berean, zein diren logotipo hori erabiltzeko arauak. Hala nahi duten operado- reek erabili ahal izanen dute, betiere merkatarit- zako beren jarduna ikusgarri egiteko eta hura bereizteko beste establezimendu eta bide batzuen bitartez gauzatzen den hartatik.

Azkenik, IV. kapituluak kontrol ofizialari eta zehapen-araubideari buruzkoa da, zeina gaian eskumena duen departamentuari baitagokio, har- gatik eragotzi gabe nekazaritza eta abeltzain- tzaren, elikagaien segurtasun eta kalitatearen, osasun publikoaren, merkataritzaren eta kont- sumoaren arloko agintari eskudunek egiten dituz- ten jarduketak. Alde horretatik, nekazaritzako ustiatzearen eta elikagaien sustapenaren arloan eskumena duen zerbitzuko funtzionarioetatik kon- trol-lanak egin behar dituzten horiek agintaritza- agenteak izanen dira, eta egokitutako jotzen duten informazio guztia bildu ahal izanen dute beren eginkizunak betetzean.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Honako hauek dira foru-lege honen xedek:

a) Arautzea eta sustatzea elikagaiak zuzene- an, edo gehenez ere bitartekari batez, merkatura- tu daitezela lehen sektoreko ekoizleen edo horien elkarte asoziatiboan, Nafarroako nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatze-titularren eta azken kontsumitzaileen artean.

b) Bide ematea ekoizleak bil daitezkeen elika- gaien kantitate txikiak saltzeko segurtasun- eta higiene-baldintzak malgutzeko irizpideetara, bat etorrita Europar Batasuneko, Espainiako eta auto- nomia-erkidegoetako legeetan ezarritakoarekin.

c) Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroa sortzea, eta ezartzea izena emateko baldintzak eta betebeharrak.

d) Aurreko a) letran adierazitako merkaturatzea identifikatzeko sistema bat ezartzea, baita hura erabiltzeko arauak ere.

2. artikulua. Helburuak.

Foru-lege honen helburua da landa-eremuak garatzen laguntzea eta, bereziki:

a) Tamaina txikiko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei laguntzea, haien bideragarritasuna hobetuta, lehiakorragoak bihurtuta, haien dibertsifikazio ekonomikoa sustatuta, eta gazteak sektorean sar daitezen ahalbidetuta.

b) Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeien titularrek errenta duinak izan ditzaten erdiestea eta haien produktuek balio erantsia izan dezaten lortzea, bai eta bidezko prezioak ere, bai ekoizlearentzat, bai kontsumitzailearentzat.

c) Produktuak jatorrian zuzenean aprobetxatzea ahalbidetzea, horrela elikagai horien lekualdaketa-, bitartekotza- eta merkaturatze-gastuak murriztuz, nekazariak eta abeltzainak kudeatutako merkaturatze-zirkuitu laburrak eta zuzenak sustatzearen bidez, aldi berean erantzuna eman ez eskaera sozial gero eta handiagoa duten tokiko produktuei, jatorri ezagunekoei eta sasoikoei. Hain zuzen, zirkuitu horiek aztarna ekologiko txikiagoa dute, gizartean ongi baloratuta eta goraldian dagoen merkatu batez arduratzen dira, eta kate osoari, hala ekoizpen-eragileei nola kontsumitzaileei, bidezko prezioak eskaintzen dizkiete.

d) Nekazaritzako elikagaiak erostea erabakitzen duten kontsumitzaileei informazio zuzena, egokia eta nahikoa bermatzea, produktuaren jatorriarekiko eta hurbileko merkaturatze-eredu batekiko konfiantza areagotzeko.

e) Herritarrek nekazaritzako elikagaien sektoreko ekoizleak ezagutu eta haien balioaz ohar daitzen sustatzea, natura-ingurunea zaintzeko egiten duten ekarpenegatik, elikagai seguru, jasangarri eta kalitatezkoak hornitzeagatik, eta landa-eremuetan biztanleria mantentzen laguntzeagatik.

f) Klima-aldaketa arintzen laguntzea, hurbileko salmentak onurak ekartzen baitizkio ingurumenari.

g) Alferrik galtzen diren elikagaien kopurua murrizten eta kontsumo arduratsua bultzatzen laguntzea, banaketa-katea laburtuta eta elikagaien manipulazioa eta biltegiatzea murriztuta.

h) Landa-turismoa edo nekazaritza-turismoa sendotzen laguntzea, bai eta Nafarroako hurbileko nekazaritza-elikagaiei lotutako jatetxeak eta ostalaritza ere.

3. artikulua. Definizioak.

1. Foru-lege honen ondorioetarako, honako definizio hauek aplikatuko dira:

a) Nekazaritzako elikagaien ekoizle-elkartea: edozein elkarte, edozein forma juridiko duela ere, baldin eta haren kideak nekazaritzako elikagaien ekoizleak badira, bakoitzak bere ustiatzea badu, eta nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak baliatzen badituzte beren ekoizpena merkaturatzeko, eraldatzeko edo prestatzeko, banaka zein elkartearen bitartez.

b) Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburra: nekazaritzako elikagaien ekoizleak nekazaritzako elikagaiak saltzea edo hornitzea azken kontsumitzaileari, zuzenean edo, gehienez ere, bitartekari batez. Zuzeneko salmentaren bidez edo hurbileko salmentaren bidez egin ahal izanen da, eta lotuta dago tamaina txikiko nekazaritza-ustiatzeietara, zeinek lehiatzeko zailtasunak izan baititzakete merkaturatzeko kanal arruntetan.

c) Jantoki kolektiboa: merkataritza-xedea edo xede soziala duen establezimendua, publikoa edo pribatua, zeinetan ematen baitira zuzenean nekazaritzako elikagaien ekoizleengandik edo bitartekariengandik eskuratutako nekazaritzako elikagaiekin osorik edo partez prestatutako janariak.

d) Elikagaien merkataritza elektronikoko enpresa: euskarri elektronikoko edo web-plataforma baten bidez nekazaritzako elikagaien ekoizleen eta azken kontsumitzaileen artean harreman zuzena izateko behar den logistika ematen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Euskarri hartan, azken kontsumitzaileek eskura izanen dituzte bai informazioa, bai harremanetarako datuak, bai haiengandik eskura ditzaketen produktuak, halako moduz non eroketa on-line egin baitaiteke, entregatzeko modua edozein dela ere: ustiatzeian bertan, aurrez hitzartutako bilketa-gune batean edo etxean.

e) Txikizkako merkataritza-establezimendua: elikagaiak manipulatu, prestatu, elaboratu edo eraldatzen diren establezimendua, eta, saltoki izanik, elikagaioak biltegiatzen dituztenak azken kontsumitzaileari eman arte, eskura edo urrutira. Honako hauek sartzen dira: salmenta ibiltariko lokalak eta ibilgailuak, laguntza-biltegiak, nagusiki azken kontsumitzaileari elikagaiak saltzen zaizkien instalazioak, eta jatetxeak eta ostalaritza-establezimenduak ere (barnean dira landa-turismoko eta nekazaritza-turismoko ostatuak).

f) Kontsumo-taldea: nekazaritzako elikagaien ekoizleei edo haien elkarteei zuzenean eta batera erosten dieten azken kontsumitzaileen erakundea edo taldea. Hainbat eratakoak izan badaitezke ere, guztiek ezaugarri bera dute: azken kontsumi-

tzaileen talde edo elkarte txikiak dira, nekazaritzako elikagaien ekoizleekin zuzenean harremanetan jartzen dira, eskaerak egiten dituzte eta saskiak banatzeko antolatzen dira.

g) Lehen mailako osagaia: elikagai baten ehuneko 50 baino gehiago hartzen duen gaia. Elikagai hori kontsumitzen duenak hura lotzen du, oro har, osagai horren izenarekin, eta haren kantitatea adierazi ohi da.

h) Udal-merkatua eta azoka txikia: udalak edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek antolatutako guneak, non nekazaritzako elikagaien ekoizleek edo bitartekariak, modu iraunkorrean edo egun zehatzetan, nekazaritzako elikagaiak saltzen baitizkiete azken kontsumitzaileei. Espazio horietan izan daitezke, haiekin batera, salmenta ibiltariko beste saltoki batzuk.

i) Azken kontsumitzailea: elikagai baten azken buruko kontsumitzailea den pertsona fisikoa edo juridikoa, elikagai hori erabiliko ez duena elikaduraren sektoreko merkataritza-eragiketa edo -jarduera batean.

j) Bitartekaria: nekazaritzako elikagaien ekoizlearen eta elikagaien azken kontsumitzailearen artean merkataritza-jarduera bat gauzatzen edo bideratzen duena, dela bere establezimenduen bidez, dela merkataritza elektronikoaren bidez.

k) Nekazaritzako elikagaien ekoizlea: Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan izena emandako ustiategiaren titularrak diren nekazariak edo abeltzainak, pertsona fisikoa edo juridikoa dela kontuan hartu gabe, nekazaritzako beren elikagaiak (freskoak edo eraldatuak) saltzen dituzten merkaturatzeko kanal labur baten bidez.

l) Nekazaritzako elikagaien ekoizpena: nekazaritzako elikagaien ekoizleak lortutakoa, lehen mailakoa izan daiteke edo eraldatua, baldin eta lehen mailako haren osagaiak ustiategitik bertatik badatoz.

m) Lehen mailako ekoizpena: landare-produktuak eta onddoak biltzearen bidez, animaliak hil aurretik haztearen eta akuikulturaren bidez, jездеaren, ehizaren eta arrantzaren bidez eta basoko produktuak biltzearen bidez lortutakoa.

n) Ekoizpen eraldatua: lehen mailako ekoizpenetik abiatuta lortzen dena, hura nabarmen aldatzen duen edozein ekintza baliatuta (tratamendu termikoa, ketzea, ontzea, heltzea, lehortzea, marinatzea, erauzketa, estrusioa edo prozedura horien konbinazioa), bai eta ustiategiko animaliak goitik behera zabaltzea eta zatikatzea ere, behar bezala baimendutako establezimenduetan hil eta prozesatu ondoren.

ñ) Hurbileko salmenta: nekazariak ekoiztitako nekazaritzako elikagaiak (lehen mailakoak edo eraldatuak) azken kontsumitzaileari merkaturatzea gehienez ere bitartekari bakar batek esku-hartzen duela, 4. artikuluan ezarritako baldintzak beteta.

o) Zuzeneko salmenta: nekazariak ekoiztitako nekazaritzako elikagaiak (lehen mailakoak edo eraldatuak) azken kontsumitzaileari merkaturatzea bitartekaririk esku-hartzen ez duela, 4. artikuluan ezarritako baldintzak beteta. Zuzeneko salmenta lotuta dago, bereziki, nekazaritza-ustiategitik edo eremu geografiko jakin bateko ekoizpen-lekutik gertu egotearekin, non azken kontsumitzaileek zuzenean edo bide telematikoz eskuratzen baitute nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren zati bat, nekazaritzako elikagaien ekoizlearekin harremanetan jarrita.

p) Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak: nekazaritzako elikagaien ekoizleek urtean gehienez prestatu eta merkaturatu ditzaketen produktu eraldatuak kopuru maximoak, zeinak foru lege honen babesean garatzen diren gidetan zehaztuko baitira.

2. Aurreko definizioez gain, aplikatuko dira Europar Batasuneko, Espainiako eta Foru Komunitateko araudietan elikadura-segurtasunari, elikagaien informazioari eta etiketatzeari eta nekazaritzako lehen mailako ekoizpenari buruz emandako definizioak.

4. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak kanal laburrean merkaturatzen direla jotzeko baldintzak.

1. Foru-lege honen ondorioetarako zuzeneko salmentatzat jotzeko, nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren merkaturatzeak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak zuzenean saldu beharko dio azken kontsumitzaileari, aurrez aurre edo Internet bidez, biak bertan direla eta bitartekorik gabe.

b) Nekazaritzako elikagaien ekoizlearen nekazaritza-ustiategiak izena eman beharko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako erregistroan, eta, erregistro horretan dagoen informazioaren arabera, nekazaritzako bost lan-unitate izanen ditu gehienez. Elkarrekin kasuan, ustiategiak lehentasunezko gisa kalifikaturik egon beharko du aipatutako legegintzako foru-dekretuaren arabera, eta nekazaritzako hamar lan-unitate izanen ditu gehienez.

c) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak inskribatuta egon beharko du nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan, 8. artikuluan aipatzen den moduan.

d) Salmenta, ahal dela, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategian bertan eginen da, baina egin ahal izanen da, era berean, udal-merkatuetan eta azoka txikietan, ustiategiari lotutako landaturismoko edo nekazaritza-turismoko ostatuetan, kontsumitzailearen etxean, salmenta elektronikoa bidez ekoizlearen webgune batean edo baimendutako beste edozein lekutan, iraunkorra ez bada.

e) Salmenta Nafarroako lurralde-eremuan egin beharko da, edo, bestela ere, nekazaritzako elikagaien ekoizlearen ustiategitik gehienez ere ehun kilometrora. Horrelakoetan, dagokion erkidegoan produktu horiek merkaturatzeari buruzko araudia aplikatuko da. Muga horiek ez dira aintzat hartuko salmenta merkataritza elektronikoa bidez egiten bada.

f) Bermatuko da betetzen direla foru-lege honen 5. eta 6. artikuluetan adierazitako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrei aplikatu behar zaizkien osasun- eta higiene-printzipio orokorrak.

2. Foru-lege honen ondorioetarako hurbileko salmentatzat jotzeko, nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren merkaturatzeak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak edo nekazaritzako elikagaien ekoizle-elkarte batek azken kontsumitzaileari saltzea, gehienez ere bitartekari bakar batek parte hartzen duela.

b) Nekazaritzako elikagaien ekoizlearen nekazaritza-ustiategiak izena eman beharko du Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritako erregistroan, eta, erregistro horretan dagoen informazioaren arabera, nekazaritzako bost lan-unitate izanen ditu gehienez. Elkarteen kasuan, ustiategiak lehentasunezko gisa kalifikaturik egon beharko du aipatutako legegintzako foru-dekretuaren arabera, eta nekazaritzako hamar lan-unitate izanen ditu gehienez.

c) Nekazaritzako elikagaien ekoizleak inskribatuta egon beharko du nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan, 8. artikuluan aipatzen den moduan.

d) Bitartekariak nekazaritzako elikagaien ekoizleek hornitutako nekazaritzako elikagaien ekoizpe-

na saldu beharko dio zuzenean azken kontsumitzaileari. Izaten ahal da txikizkako merkataritzako establezimendu bat, udal-merkatu bateko edo azoka txiki bateko saltoki bat, landa-turismoko edo nekazaritza-turismoko ostatu bat, jatetxe edo ostalaritza-establezimendu bat, jantoki kolektibo bat (publikoa edo pribatua), garraio-agentzia bat edo antzeko zerbitzu bat, merkataritza elektronikoko enpresa bat edo beste edozein formula, baldin eta aukera ematen badu azken kontsumitzaileak jakin dezan, zuzen, egoki eta nahikoa informazio izanik jakin ere, nekazaritzako zer ustiategitatik datozen erosi edo kontsumitzen dituen nekazaritzako elikagaiak. Baldin eta elikagaiak kolektibo kalteberei hornitzen bazaizkie, hala nola adineko-ek, haurrei edo gaixoei, talde horiek hornitzeari buruzko arau espezifikokoak aplikatuko dira.

e) Salmenta Nafarroako lurralde-eremuan egin beharko da, edo, bestela ere, nekazaritzako elikagaien ekoizlearen ustiategitik gehienez ere ehun kilometrora. Horrelakoetan, dagokion erkidegoan produktu horiek merkaturatzeari buruzko araudia aplikatuko da. Muga horiek ez dira aintzat hartuko salmenta merkataritza elektronikoa bidez egiten bada.

f) Bermatuko da betetzen direla foru-lege honen 5. eta 6. artikuluetan adierazitako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrei aplikatu behar zaizkien osasun- eta higiene-printzipio orokorrak.

3. Deusetan galarazi gabe foru-lege honek ezarritako betebeharrak, Nafarroako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburretan jarduten duten nekazaritzako elikagaien ekoizleek eta bitartekariak Nafarroako elikagaien enpresa eta establezimenduen osasun erregistroan izena emanen dute, beharrezkoa izanez gero eta jarduerari ekin aurretik, haien funtzionamendua arautzen duen arauan ezarritako moduan.

5. artikulua. Elikagaien segurtasunaren eta higienearen erantzukizuna nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburretan.

1. Saldutako produktuen segurtasunaren eta higienearen erantzule izanen dira nekazaritzako elikagaien ekoizlea eta nekazaritzako elikagaien ekoizpena merkaturatzeko eta azken kontsumitzaileari entregatzeko prozesuan parte hartzen duen bitartekaria, eta produktu horiek kaltegabeak izatea zainduko dute. Elikagaiak ekoizteko, eraldatzeko eta saltzeko etapa guztietan jarduera horiek gauzatzeko dagokien araudia bete beharko dute.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa galarazi gabe, elikagai kantitate txikiak merkaturatzen

badira, nekazaritzako elikagaien ekoizleak eta bitartekariak aplikatu ahal izanen dituzte agintaritzaren eskudunak baliozkotutako elikagaien osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidak, Europako, Espainiako eta autonomia-erkidegoetako osasun araudia eta gainerako araudi aplikagarria betetzen direla ziurtatzeko. Gida horiek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko dute; genero estereotipoetan edo sexu orientazio, genero adierazpen edo sexu identitateagatik edozein diskriminaziotan oinarritutako ereduak erabiltzea saihestuko dute. Era berean, irakurketa errazeko formatuan, letra handituan edo beste sistema alternatibo batzuetan bertsiak izan beharko dira, irisgarritasun unibertsala errazteko.

6. artikulua. Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun eta higie baldintzak egokitzea.

1. Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzea errazteko, osasunaren eta landa-garapenaren arloko agintari eskudunek osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidak eginen dituzte modu koordinatuan. Gida horietan, produkzio, elaborazio, eraldaketa eta merkaturatze etapetan bete beharreko higie eta osasun baldintza eta betekizunen egokitzapenak ezarriko dira, galarazi gabe higie eta osasun bermeak betetzea eta azken kontsumitzaileentzako elikagai seguruak eta kaltegabeak merkaturatzea.

2. Elikagaien osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidetan jasotako egokitzapenak honako hauek izaten ahal dira:

a) Europar Batasuneko, Espainiako edo autonomia-erkidegoetako araudian jasotako instalazio, ekipamendu eta funtzionamenduko betekizun jakin batzuk salbuestea edo albo batera uztea.

b) Arriskuen Analiaren eta Kontrol-puntu Kritikoaren Sistema (APPCC) sinplifikatzea edo, kasu bada, horren orde, osasun eta higie arloetan aritzeko jardunbide egokiak ezartzea.

3. Elikagaien osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidak produktu edo produktu mota bakoitzerako espezifikoak izanen dira, eta foru-lege honen eranskinean jasotako gutxieneko edukia izanen dute.

4. Produktu edo produktu mota bakoitzeko merkaturatuko den kantitate txikia dagokion osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidan zehaztuko da, eta hori izanen da 1. eta 2. apartatuetan adierazitako malgutasunean aplikatzen ahalko den gehienekoa.

5. Nekazaritzako elikagaien ekoizle edo bitartekari batek hainbat produktu edo produktu mota

merkaturatzen dituzenean, 4. apartatuan produktu edo produktu mota bakoitzerako adierazitako muga aplikatuko da, modu independentean.

6. Elikagaien osasun eta higie arloetako jardunbide egokien gidak betekizun sanitarioen egokitzapenari buruzko arau teknikoetatik abiatuta eginen dira, eta foru-agindu bidez onetsiko dira, osasunaren eta landa-garapenaren arloan eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuako departamentuetako titularrek batera proposatuta, eta haien diseinuan parte hartuko dute nekazaritzaren ekoizpenean, eraldaketan eta merkaturatzean inplikaturako sektore eta operadoreek.

7. Nekazaritzako elikagaien kopuru txikiak merkaturatzen dituzten nekazaritzako elikagaien ekoizleak erregelamenduz onartutako higiearen eta jardunbide egokien gidak aplikatzen ahalko dituzte, eta agintari eskudunek horien erabilera eta aplikazioa oso-osorik egiaztatu beharko dute.

7. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzea.

1. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak sustatzeko, Nafarroako Gobernuak ekintzak eginen ditu 8. artikuluan jasotako erregistroan izena emandako nekazaritzako elikagaien ekoizleak eta haien ustategiak ikusarazteko, bai eta bitartekariak ikusarazteko ere. Horrela, azken kontsumitzaileen konfiantza areagotuko da merkaturatze eredu horretan, hobeki ezagutu eta gehiago baloratuko da natura ingurunea eta landa-eremuetako biztanleria kontserbatzeko eta mantentzeko egiten duten ekarpena, eta handituko da elikagai seguru, jasangarri eta kalitatezkoen hornidura.

Ekintza horietan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko da, genero rolean loturik ez duen berdintasuneko irudia sustatzeko, emakumeen eta gizonen askotariko irudia eskaintzeko, eta sexu orientazioagatik, genero adierazpenagatik eta sexu identitateagatik edozein diskriminazio saihesteko. Era berean, irakurketa errazeko formatuan, letra handituan, zeinu-hizkuntzan, azpituluekin edo irisgarritasun unibertsala errazteko beste sistema alternatibo batzuetan dauden bertsiak erabili ahal izanen dira.

2. Nafarroako Gobernuak jardunbide egokien gidak prestatuko ditu, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren garapena errazteko. Gida horiek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiliko dute; genero estereotipoetan edo sexu orientazio, genero adierazpen edo sexu identitateagatik edozein diskriminaziotan oinarritutako ereduak erabiltzea saihestuko dute. Era berean, irakurketa errazeko formatuan, letra handituan edo

beste sistema alternatibo batzuetan bertsioak izan beharko dira, irisgarritasun unibertsala errazteko.

II. KAPITULUA

Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroa, informazioa eta identifikazioa

8. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroa.

1. Nafarroako Gobernuak nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistro bat ezarriko du, eta bertan ezinbestean inskribatuko dira nekazaritzako elikagaien ekoizleak eta jarduera horretan aritzen diren bitartekariak. Erregistroak identifikatuko du operadoreak zuzeneko salmenta, hurbileko salmenta edo biak egiten dituen.

2. Erregistroa ofiziala eta publikoa izanen da, eta izena emandako operadoreak eta haien jarduera ikusarazten lagunduko duten datuak jasoko ditu, bai eta, ahal denean, genero-adierazleak eta sexuari buruzko aldagaia —maskulinoa, femeniinoa eta beste bat aukerak izanen ditu—, eta irisgarritasunari buruzkoak. Informazio hori datu pertsonalen babesari buruzko araudiaren mende egonen da, gaian eskumena duen departamentuak kudeatuko du, eta behar bezala eguneratuta mantenduko da.

3. Operadoreak erregistroan sartzeko, forulege honetan aurreikusitako baldintzak bete beharko dira.

4. Erregistroan sartzeak operadoreei Nafarroako Gobernuak garatzen dituen logotipoak erabiltzeko eskubidea eman die, Nafarroako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburretan duten parte-hartzea ikusarazteko.

9. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena ematea.

1. Nekazaritzako elikagaien ekoizleek, ekoizleen elkarrekin eta bitartekariak, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena eman nahiz izanez gero, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskabide bat aurkeztea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araberakoa. Administrazioaren formularioek, inprimakiek eta euskarriek hizkuntza inklusiboa eta ez-sexista erabiliko dute. Era berean, irakurketa errazeko formatuan, letra handituan edo beste sistema alternatibo batzuetan bertsioak egiten ahalko dira, irisgarritasun unibertsala errazteko.

b) letran adierazitako eskabideari jardueraren gaineko adierazpen bat eranstea, gutxienez honako informazio hau izanen duena:

Lehena. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren bidez merkaturatuko diren produktu motak eta aurreikusitako kantitateak, izan zuzeneko salmentan, hurbileko salmentan edo bietan.

Bigarrena. Nekazaritzako ustategiaren edo ustategien inskripzio-zenbakia edo zenbakiak Nafarroako nekazaritza ustategien erregistroan.

Hirugarrena. Kanal laburretan merkaturatzeko erabilitako instalazioen, ekipoen eta sistemen (garraiobideak barne) deskribapena eta kokapena.

Laugarrena. Zein lurralde eremutan merkaturatuko den eta nola: nekazaritzako ustategian bertan saltzea, udal merkatuetan eta azoka txikietan, landa-turismoko edo nekazaritza-turismoko ostaluetan, merkataritza elektronikoaren bidez, kontsumo taldeetan, etxez etxeko entregean bidez, jatetxe edo ostalaritza establezimenduetan, jantoki kolektiboetan, edo beste batzuetan.

Bosgarrena. Operadoreak erregistroari jakinaraztea egokitzen jotzen duen beste edozein informazio interesgarriak, hala nola marka propioak, kalitate ikurrak edo beste batzuk.

c) Bitartekariak adierazi beharko dute nekazaritzako elikagaien zer ekoizleri erosiko dioten nekazaritzako elikagaien ekoizpena.

d) Ekoizle elkarrekin kasuan, elkarrekin osatzen duten pertsonak identifikatu beharko dira, eta horiek guztiek erregistroan izena emanda egon beharko dute alde aurretik.

2. Eskatutakoa aurreko apartatuaren arabera aurkeztea baldintza bakarra eta nahikoa izanen da erregistroan sartzea izapidetzeko eta kanal laburren merkaturatzeko eskubideak eta betebeharrak eskuratzeko, alde batera utzi gabe kasuan kasuko erregistroetan alde aurretik izena eman behar izatea eta egiten ahal diren kontrol ofizialak, bai eta jarduera garatzeko beharrezkoak izaten ahal diren beste baimen osagarri batzuk ere.

3. Gaian eskumena duen departamentuak operadoreari jakinaraziko dizkio erregistroan esleitutako inskripzio-identifikatzailea eta zein diren kanal laburreko merkaturatze modalitatean aurreikusitako jarduerak.

4. Erregistroko izen-emateak indarraldi mugagabea izanen du.

5. Honako arrazoi hauengatik eman ahal izanen da baja erregistroan:

a) Izena emandako operadoreak berariaz hala nahi duelako; kasu horretan, artikuluko honen 1. apartatuan adierazitako edozein bidetatik jakinarazi beharko du.

b) Erregistroko informazioa ez eguneratzeagatik edo ondoz ondoko bi urtetan merkaturatze jarduerarik ez egiteagatik.

c) Operadoreak elikagaien enpresa eta establezimenduen erregistroan, osasun erregistroan edo Nafarroako nekazaritza ustategien erregistroan izena emateko eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik, izen-emate hori nahitaezkoa denean.

6. 5. apartatuko b) eta c) letretan deskribatutako egoerei dagozkien bajak zuzendari nagusi eskudunaren ebazpen baten bidez onetsiko dira, interesdunari entzun ondoren.

10. artikulua. Nafarroako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena ematearen ondoriozko betebeharrak.

1. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena emandako nekazaritzako elikagaien ekoizleek eta bitartekariak betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Erregistroari jakinaraztea hasieran jakinarazitako informazioari buruzko aldaketak, horiek erregistroan inskribatzeko, gertatzen direnetik hila-beteko epean, eta jarduera eteten bada, partez edo osorik, eteten denetik.

b) Erregistroari urtero jakinaraztea aurreko urtean egindako eragiketen laburpena: nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren bidez merkaturatutako produktu motak eta kantitateak, izan zuzeneko salmentan, hurbileko salmentan edo bietan; datak eta tokiak, eta zer bitartekariarekin izan dituzten merkataritza harremanak.

c) Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren bidez egindako merkaturatze jarduerari buruzko informazio guztia gutxienez lau urtez mantentzea, izan jarduera horiek zuzeneko salmentan, hurbileko salmentan edo bietan eginak. Informazioak bide horietan parte hartzeko baldintzak betetzen direla eta eragiketen trazabilitatea egiaztatzeko behar adina datu bildu behar ditu, hala nola produktuen merkaturatutako kantitateak, datak, saltokiak edo txikizkako zer merkataritza establezimendurekin egin diren eragiketak.

2. Erregistroan izena emandako operadoreek agintaritza eskudunak zehazten dituen kontrolak egin beharko dituzte eta horiek egiten lagundu beharko dute. Agintaritza eskudunak jarduera

indarrean dagoen bitartean araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatzen ahalko du, baita kontrola gauzatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria ere.

III. KAPITULUA

Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburrak identifikatzea eta logotipoak erabiltzeko arauak

11. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrak identifikatzea.

1. Nafarroako Gobernuak bereizgarri edo logotipo bat eginen du, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena emandako operadoreen eta produktuen identifikazioa eta informazioa errazteko. Bereizgarri hori lokaletako sarbideetan, errepideetan eta bidegurutzeetan edo inguruetan erabiltzen ahalko da, seinaleztatze-sistema baten bidez, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

2. Bereizgarria eskuragarri izanen da Nafarroako Gobernuaren webgunean, deskargatzeko, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena emandako operadoreentzat soilik.

3. Bereizgarria bateragarria izanen da lehendik dauden kalitate-markekin, hala nola jatorri-deiturekin, adierazpen geografiko babestuekin, ekoizpen ekologikoaren ziurtagiriek edo artisau-elikagaiekin.

12. artikulua. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren logotipoa erabiltzeko arauak.

1. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistroan izena emanda duten operadoreek eta produktuek 11. artikuluan adierazitako bereizgarria edo logotipoa erabiltzen ahalko dute, hala nahi badute.

2. Logotipoa erabiltzea erabakitzen duten operadoreek honako hauetan erakusten ahalko dute: udal merkatuetan eta azoka txikietan, landa-turismoko edo nekazaritza-turismoko ostatuetan, kontsumo taldeetan, txikizkako merkataritzako establezimenduetan, jatetxeetan edo ostalaritza-establezimenduetan, jantoki kolektiboetan, garraio agentzietan edo antzeko zerbitzuetan, eta merkataritza elektronikoko enpresetan, bai eta nekazaritzako ustategirako sarbidean ere.

3. Operadoreek logotipoa erabiltzen ahalko dute, bakar-bakarrik, foru-lege honetan ezarritakoa betetzen duten nekazaritzako elikagaietan; horrek ez du galarazten hura betetzen ez duten

produktuak aldi berean saltzea, baldin eta azken horiek ez badaude zuzeneko salmenta edo hurbileko salmenta gisa identifikatuta eta ez badio nahasbiderik sortzen erosi behar dituenari.

4. Nekazaritzako elikagaien ontziek etiketa eduki behar badute eta operadoreak kanal laburren logotipoa erabiltzea aukeratzen badu, etiketan txertatzen ahalko dute, alde batera utzi gabe etiketatzearen arloan informazio komertzialerako indarrean dagoen araudia.

5. Logotipoa erabiltzen duten txikizkako merkataritza establezimenduek eta kontsumo taldeek, beren instalazioetako sarbidean adierazi beharko dute zer motatako nekazaritzako elikagaiak dituzten zuzeneko salmentan edo hurbileko salmentan. Era berean, azken kontsumitzaileak hala eskatzen badu, ekoizleei eta produktuen sorburu diren nekazaritza-ustiatzeari buruzko informazioa eman beharko dute.

6. Logotipoa erabiltzen duten jatetxeen edo ostalaritza-establezimenduen, landa-turismoko edo nekazaritza-turismoko ostatuen eta jantoki kolektiboen kasuan, kartan edo menuan adierazten ahalko dituzte zuzeneko salmentako edo hurbileko salmentako produktuak. Era berean, azken kontsumitzaileak hala eskatzen badu, informazioa eman beharko dute nekazaritzako elikagaien ekoizleei buruz eta produktuen jatorri diren nekazaritzako ustiatzeari buruz.

7. Operadoreek nekazaritzako elikagaien ekoizpena merkataritza elektronikoaren bidez saltzen dutenean, zuzeneko salmentaren edo hurbileko salmentaren logotipoa sartzan ahalko dute web-orrietan, bai eta salmenta horren produktuetan ere.

8. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren bidez saltzeko sustapen ekintzak egiten badira, operadoreek dagokien logotipoa erakutsi beharko dute.

IV. KAPITULUA **Kontrol ofiziala** **eta zehapen-araubidea**

13. artikulua. Kontrol ofiziala.

1. Foru-lege honek nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburrei buruz ezartzen dituen baldintzak betetzen direla egiaztatuko du gaian eskumena duen departamentuak; horrek ez ditu galaraziko elikagaien segurtasun eta kalitatearen, osasun publikoaren, merkataritzaren eta kontsumoaren arloko agintaritza eskudunek egiten dituzten kontrolak.

2. Gaian eskumena duen departamentuaren jarduerak kontrol ofizialeko izaera izanen dute. Kontrolak nekazaritza-ustiatzeari eta nekazaritzako elikagaien sustapenaren arloan eskumena duen zerbitzuko langileek egiten dituzte, eta agintaritza-agenteak izanen dira jarduera horiek egiten dituztenean.

3. Agintari eskudunek noiznahi egiten ahalko dituzte beharrezkotzat jotzen dituzten kontrolak eta ikuskapenak, foru-lege honetan eskatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko. Hala ere, kontrolak modu koordinatuan egiten dira, operadoreei, ahal den neurrian, kontrolak behin eta berriz edo beharrik gabe behin baino gehiagotan ez egiteko.

14. artikulua. Zehapen-araubidea.

Foru-lege honetan araututako produktuen ekoizpenaren eta merkaturatzearen arloko arauhausteak honako arau-hauste eta zehapenen araubide hauen arabera zehatuko dira:

a) Kontsumo arloko arau-hausteak zehatuko dira Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko ekainaren 20ko 7/2006 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoarekin bat etorrira.

b) Ekoizpenean abereen osasunaren eta higie-nearen arloko arau-hausteak zehatuko dira Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen VIII. kapituluan xedatutakoarekin bat etorrira.

c) Lehen mailako ekoizleen eta kontsumitzaileen artean txikizkako salmenta edo zuzeneko salmenta egiten duten establezimenduetako osasun- eta higiene-arloko arau-hausteak zehatuko dira Elikagaien segurtasunari eta nutrizioari buruzko uztailaren 10eko 17/2011 Legearen IX. kapituluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Xedapen gehigarri bakarra. Osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidak egiteko epea.

Foru-lege honetako 6. artikuluan aurreikusitako osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien gidak osasun eta landa-garapeneko agintari eskudunek idatziko dituzte foru-lege honek indarra hartu eta hemezortzi hilabeteko epean.

Lehen xedapen iragankorra. Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko Nafarroako kanal laburren erregistrora migratzea.

Azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak arautzen duen Nafarroako zuzeneko salmentako nekazaritzako elikagaien operadoreen erroldan izena emanda duten nekazaritzako ustiatzeari eta nekazaritzako elikagaien artisauek Nafarroako

rroako nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren erregistroan izena ematen ahalko dute. Horretarako, izena emateko asmoa berriaz adierazten duen eskabide bat aurkeztu behar dute, informazio edo dokumentazio osagarriak aurkeztu beharrik gabe. Hala ere, izen-ematea mantentzeko, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera izen-emate eskaera bat formalizatu beharko dute, gehienez ere sei hilabeteko epean, izen-ematearen jakinarazpenetik zenbatzen hasita.

Bigarren xedapen iragankorra. Azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak arautzen duen Nekazaritzako elikagaiak zuzenean saltzen dituzten operadoreen Nafarroako erroldaren indarraldia.

Nekazaritzako elikagaiak zuzenean saltzen dituzten operadoreen Nafarroako errolda, azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretuak arautua, indarrean segituko du sei hilabetez, foru-lege hau indarrean jartzen denetik aurrera.

Xedapen indargabetzailea. Indargabetutako arauak.

Foru-lege honek indarra hartzen duenean, lege honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo behegoko xedapen guztiak indarrrik gabe utziko dira, eta, bereziki, Nafarroan nekazaritzako

eta abeltzaintzako ustiatzeari lotutako produktuen zuzeneko salmenta arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea eta foru-lege hori garatzen duen azaroaren 12ko 107/2014 Foru Dekretua, hori guztia arau honen bigarren xedapen iragankorrean jasotako aurreikuspenari kalterik egin gabe.

Azken xedapenetako lehena. Garatzeko ahalmena.

1. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio arauen arabera gara ditzan nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun eta higijene baldintzak egokitzeari buruz foru-lege honetan jasotako xedapenak.

2. Landa Garapenaren arloko departamentu eskuduneko titularrari ahalmena ematen zaio foru-lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan, aurreko aparatuan xedatutakoa izan ezik.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

ERANSKINA**Nekazaritzako elikagaien kantitate txikiak merkaturatzeko osasun eta higiene arloetako jardunbide egokien giden gutxienezko edukia**

Produktu edo produktu mota bakoitzerako onesten diren gida espezifikoek gutxienez honako eduki hau izanen dute:

1. Helburuak.
2. Gidaren aplikazio eremuan sartzen diren produktuak eta establezimenduak.
3. Produktuaren edo produktu motaren kantitate txikiak ezartzea.
4. Nekazaritzako elikagaiak kanal laburretan merkaturatzeko jarduerak egiten dituzten operadoreen betekizunak, betebeharrak eta erantzukizun orokorrak.
5. Nekazaritzako elikagaiak kanal laburretan merkaturatzeko jarduerak egiten dituzten operadoreen berariazko betekizunak, betebeharrak eta erantzukizunak.
6. Nekazaritzako elikagaiak kanal laburretan merkaturatzeko jarduerak egiten dituzten operadoreen establezimenduak eta instalazioak deklaratzeari.
7. Ekipamendurako, funtzionamendurako eta jardueretarako betekizunak eta baldintzak

nekazaritzako elikagaiak kanal laburretan merkaturatzeko:

- a) Establezimenduen kokapen eta sarbide baldintzak.
- b) Lokalen diseinu eta azpiegitura baldintzak.
- c) Parametro kritikoak zaintzeko ekipoen, tresnen eta gailuen baldintzak.
- d) Mantentze-lan teknikoa.
- e) Landutako produktuen eta prozesuen higie-ne baldintzak.
- f) Garbitzeko eta desinfektatzeko jardueren baldintzak.
- g) Izurrien kontrola.
- h) Hondakinen eta azpiproduktuen eta hondakin uren kudeaketa.
- i) Uraren, aireztapenaren eta airearen kontrola.
- j) Langileen higie-ne eta prestakuntza.
- k) Garraiobideen baldintzak.
- l) Lehengaien kontrola.
- m) Etiketatzea eta trazabilitatea.
- n) Autokontrol sistemak eta neurri zuzentzaileak.
- o) Azken produktuaren kontrola.

10-23/LEY-00003. Foru Legea, Sagasetako Kontzejuaren herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Sagasetako Kontzejuaren herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Sagasetako Kontzejuaren herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

HITZAURREA

Sagasetako Kontzejuak eskatu du herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratzeko eta haien desafektazioa egitea; Eguesibarko 9. poligonoko 209., 210. eta 226. lurzatiak dira, herri-lurretakoak.

Desafektazioaren eta ondorengo trukearen helburua da lursail partikularrak eskuratzea lzpikudi mendiko larreak bateratzeko eta aprobe-txamendu hobea egiteko.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. apartatuan xedaturikoaren arabera, Sagasetako Kontzejuak eskatzen duen desafektazioa foru lege bidez onetsi behar da, eremuak lurzati txikiaren definizioaren mugak gainditzen dituelako.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Sagasetako Kontzejuaren herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da, honela banatuta: 209. lurzatiako 6.739,51 metro koadro, 210. lurzatiako 7.426,99 metro koadro 266. lurzatiako 39.836,43 metro koadro, denak Eguesibarko

katastroko 9. poligonon, Sagasetan. Lur horiek herri-ondasuntzat joko dira foru lege honen 2. artikuluko baldintzetan trukea egin arte.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Sagasetako Kontzejuari baimena ematen zaio aurreko artikuluan deskribatutako lurak Román Jesús Esain Equiza jaunaren eta Luis Miguel Esain Equiza jaunaren jabetzakoak diren eta Eguesibarko katastroko 9. poligonoko 214. lurzati, Sagasetan, dauden 218.168,77 metro koadroekin trukatzeko, larreak eta haien aprobe-txamendua bateratzeko 9. poligonoko 212. herri-lurzatiarekin batera. Baimena baldintza hauekin ematen da:

a) Trukea egiteko itunetako klausula batek xedatu dezala lurak herri ondarera itzuliko direla, baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzultze klausula hori ager dadila kontratua formalizatzeko agiri publikoetan eta horiek Jabetza Erregistroan inskribatu daitezela.

c) Bete daitezela herri-lurretako 54.002,93 metro koadroren desafektaziorako Sagasetako Kontzejuak 2021eko otsailaren 25ean onetsitako baldintza-agirian jasotako estipulazioak. Lur horiek Eguesibarko 9. poligonoko 209., 210. eta 226. lurzatiakoak dira, Sagasetakoak.

d) 24.707,25 euroko zenbatekoa eman dakiela partikularrei, trukatu beharreko lurzatiaren alde ekonomikoa konpentsatzeko.

Azken xedapenetako lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00004. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Biztanle kalteberenek alokairu ordainerraza eskura dezaten Nafarroako Foru Komunitateak duen mekanismo nagusia da etxebizitza-parke garrantzitsu bat izatea alokairu sistema publikoari lotua, dela errentamendu babestuko sustapenen bitartez, dela Alokairuen Poltsaren bitartez edota David, Emanzipa eta gisako programa osagarrien bitartez.

Errentamendu babestuko sustapenak, hala ekimen pribatukoak nola ekimen publikoak, eredu beharrezkoak eta osagarriak dira. Errentamendu ordainerrazaren eskari gero eta handiagoko testuinguruan aldi berean heldu behar zaie bi ereduiei.

Errentamendu pribatuko sustapenen kasu zehatzean, sektoreko ekimen berriak urritzen ari diren honetan neurriak hartu behar dira errentamendu babestuko egungo sustapenek, Foru Komunitatearen dirulaguntza jaso dutenek, alokairu sistema publikoarekiko lotura luza dezaten haien nahitaezko kalifikazio aldia bukatu ondoren ere.

Horrela, errentamendu babestuko araubidea luzaturik, etxebizitza horietako maizterrek errentamendu babestuaren onura izanen dute, eta diru-sarrera apalagoak dituzten biztanleek babes ofizialeko etxebizitza errentan hartzeko dirulaguntzak eskuratu ahal izanen dituzte, eta horrenbestez errenta nabarmen txikiagoa ordaindu.

Helburu horri begira hiru neurri nagusi hartu nahi dira:

Lehenik, Etxebizitzari buruzko Foru Legearen testuan argitzea zer ondorio ekarriko duen errentamendu babesturik ez kudeatzeak, babes aldia bukatu ez zaien sustapenen kasuan.

Bigarrenik, aukera ematea babes aldia bukatu zaien errentamendu babestuko sustapenak berriz atxiki ahal izateko alokairu publikoko sistemari, eta higiezin horiek zaharbertzeko laguntzak ematea, beharrezkoa bada.

Hirugarrenik, berariaz prozedura bat arautzea etxebizitza arloko departamentu eskudunak etxebizitzak edo sustapenak erosi ahal izan ditzan, aurrekontuko baliabideen arabera, alokairu ordainerrazera bideratzeko, Ondareari buruzko Foru Legeak emandako ahalmena baliatuz.

Artikulu bakarra. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Bat. 11. artikuluari g) letra gehitzen zaio; hau da testua:

“g) Alokairu sistema publikoari lotutako etxebizitza-parke publikoa handitzea, etxebizitzak eskuratzuz”.

Bj. 52. artikuluari f) letra gehitzen zaio; hau da testua:

“f) Errentamendu babestuko sustapen gisa kalifikatu diren eta babes araubideko aldia oraindik bukatu ez zaien etxebizitzen sustapenak alo-

kairu sistema publikoari lotuta mantentzeko bete-beharra ez betetzea”.

Hiru. 66. artikuluari apartatu bat gehitzen zaio; hau da testua:

“8. Errentamendu babestuko kalifikazioa duten etxebizitzaren sustapenak alokairu sistema publikoari lotuta ez mantentzea haien babes araubideak dirauen bitartean”.

Lau. Bigarren xedapen gehigarriaren testua aldatzen da; hau da testu berria:

“Bigarren xedapen gehigarria Nafarroako Gobernuak eskuratutako etxebizitzak esleitzeko modua.

Foru lege honen 33. artikuluan eta hogeita hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera eskuratzen diren etxebizitzak eta Nafarroako Gobernuak, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, lehentasunez erosteko eskubideak eta desjabetzeko ahalmena erabiliz eskuratzen dituenak administrazio publikoen etxebizitza arloko politiken ondorioz sortutako beharrei erantzunez esleitu dira. Helburu berari jarraituko zaio Alokairuen Poltsa kudeatzeko orduan”.

Bost. Hamaseigarren xedapen gehigarriaren 4. eta 6. apartatuen testua aldatzen da; hau da testu berria:

“4. Baldin eta sustatzaileak, elkarrekin edo sustapenaren eskuratzailer berriak errentamendu-araubidea edo erabilera-lagapeneko araubidea aldatzen badu etxebizitzak babes-araubideari loturik dirauen bitartean, etxebizitza arloan eskudun den departamentuak horretarako baimenik eman gabe, jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, bai eta berandutze-interesak ere, dirulaguntza ordaindu den uneetatik hura itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera artekoak. Horrek ez ditu ezertan galaraziko bidezkoak diren bestelako zehapen-jarduketa batzuk eta legezkotasuna berrezartzeko bestelako ekintza batzuk”.

“6. a) Erosteko aukerarik gabeko errentamendu-araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzak eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaitasuna dutenentzako alokairuko apartamentu babestuak sustatzen dituztenek edo haien jabeek birgaitze babestuagatik dirulaguntza bat jasotzen ahalgo dute, aurrekontu babesgarriaren ehuneko 80 artekoa, eta etxebizitza bakoitzeko 25.000 eurokoa gehienez, baldintza hauekin betiere:

– Etxebizitzek gutxienez 20 urteko antzintasuna badute.

– Eta sustatzaileak babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarrita dauden baldintzekin erabili

izana etxebizitzak errentamendurako, etenik gabe, eta konpromisoa har dezala horretara erabiltzeko, baldintza beretan, gutxienez beste 15 urtez, birgaitze babestuari buruzko espedientearen behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita, hala egin ezean baldintza horiekin jasotako dirulaguntza itzuli behar izatearen zigorpean.

b) Errentamendu araubideko kalifikazioa duten babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak, beren babes araubideko aldia amaitutakoan alokairu sistema publikotik bereizi badira eta berriz ere sistema horri atxikitzeko eskatzen badiote Etxebizitza Departamentuari, birgaitze babesturako dirulaguntza jaso ahalgo dute, aurrekontu babesgarriaren ehuneko 60ra artekoa eta etxebizitza bakoitzeko 25.000 eurokoa gehienez ere, baldin eta:

– Etxebizitzek gutxienez 20 urteko antzintasuna badute.

– Konpromisoa hartzen badute etxebizitzak 15 urtez errentamendu babesturako erabiltzeko, birgaitze babestuaren espedientearen behin betiko kalifikazioaren datatik hasita, baldintza horiekin jasotako dirulaguntza itzuli behar izatearen zigorpean.

– Egiten diren obretan bermatu behar da Eraikinaren Ebaluazio Txostenak, Lehendik baden Eraikinaren Liburuaren zati denak, “gai” emaitza lortuko duela, baita txosten hori nahitaez egin beharreako ez denean ere”.

Sei. Hogeita laugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hau da testu berria:

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Kasu bereziak.

1. 2023ko urtarrilaren 1etik, eta dagokion erregelamenduaren garapena onesten ez den bitartean, dirulaguntza emanen da etxebizitza erabilia eskuratzeko 5.000 biztanle arteko udalerrietan, eta landa eremuko 20.000 biztanle arteko udalerrietan, bertako herrigune guztiak 5.000 biztanle artekoak badira, baldin eta eskuratzailer guztiak 35 urtetik beheitikoak badira eta babes ofizialeko etxebizitza berria eskuratzegatik dirulaguntzak eskuratzeko baldintza guztiak betetzen badituzte, salbu eta etxebizitza babestuko eskuratzaileren eroldan alde aurretiazko inskripzioa egin izateari buruzkoa. Etxebizitzaren eta eranskinen prezioak ez du gairatutako babes ofizialeko etxebizitza bigarren ez edo aldi gehiagotan eskualdatuta eskuratzeko ezarritako prezioa.

Dirulaguntzen onuradunek erositako etxebizitza ohiko bizileku iraunkor gisa erabili beharko dute. Etxebizitzek bizigarritasun-zedula eduki beharko dute eta azalerari buruzko baldintzak, babes ofizialeko etxebizitzetarako aplikatzekoak direnak, bete, eranskinei dagozkien mugak izan ezik.

Emandako dirulaguntzen baldintzak eta porzentajeak izanen dira babes ofizialeko etxebizitza berriak eskuratzeko dauden berberak, baina baka-riek etxebizitzaren salmentaren prezioari aplikatu-ta, eranskinik gabe. Salerosketa-kontratuaren alde aurreko ikus-onetsi administratiboa eskatu-ko da, eta dirulaguntza ordainduko da interesdu-nak alde aurretik eskatuta, hura eman eta gehie-nez ere 6 hilabeteko epean, etxebizitzaren eskuraketaren eskritura publikoa.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoari jarraikiz dirulaguntzak ematea baimenduko da, eskura-tzaileen adina edo etxebizitza dagoen udalerrria edozein dela ere, babes ofizialeko etxebizitzak, errentamenduaren edo erosketa-aukeradun erren-tamenduaren kalifikazioarekin eta haien babes araubidea amaitu denean, indarra duen errenta-mendu babestuaren azken kontratuaren titularrek eskuratzen badituzte.

Kasu honetan ez da kanpoan utziko eranski-nen azalera ez gehieneko salmenta prezioa kalkulatzeko ez erosleentzako dirulaguntza kalkulatzeko, eta kontuan hartuko dira etxebizitza babestuaren kalifikazioaren dokumentuan jasota-ko azalerak.

3. Aurreko bi apartatuei jarraikiz eskuratu eta diruz lagundutako etxebizitzetara aplikatuko zaie foru lege honen bosgarren artikuluan jasotzen den laguntza ekonomikoaren xede den jarduketa babesgarri orori aplikatu beharreko denborazko baldintza, 10 urteko aldirako, etxebizitza erosteko eskritura publikoa ematen den egunetik kontatzen hasita. Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izanen da aurreko baldintza agertzea aipatutako eskrituran”.

Zazpi. Hogeita hamargarren xedapen gehigarrria eransten da, testu honekin:

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Etxebizitzak eskuratzeko eta kudeatzeko.

1. Etxebizitza arloko eskumena duen departa-mentuak etxebizitzak eskuratzeko eta kudeatzeko ahalmena baliatuko du errentamendu araubideko etxebizitza ordainerrazen eskaria asetzeko.

2. Etxebizitza arloko eskumena duen departa-mentuak etxebizitzak eskuratu ahalko ditu lehiake-ta publikoaren bidez edo zuzenean Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak aurreikusitako kasuetan, eta arau horrek ezarritako prozedurei jarraikiz.

3. Etxebizitza arloko eskumena duen departa-mentuak etxebizitzak eskuratzeko ordainduko duen gehieneko prezioa bat etorriko da babes ofi-zialeko etxebizitzak bigarren eskualdaketan eta

hurrengoetan esleitzeko edo saltzeko gehieneko prezioekin.

4. Errentamendu babestuko kalifikazioa izanik babes araubideko aldia bukatu zaien eta errenta-mendu babestuko kontratu ikus-onetsiak dituzten sustapenak eskuratuko dira, lehentasunez.

5. Etxebizitza arloko eskumena duen departa-mentuak funtsak eskualdatu ahalko dizkio sozietate instrumental edo erakunde publiko bati, hark eskuratu, ustiatu eta kudeatu ditzan etxebizitzak.

6. Etxebizitza arloko eskumena duen departa-mentuak zuzenean nahiz sozietate instrumental edo erakunde publiko baten bitartez eskuratu ahalko ditu etxebizitzak, eta sozietate edo erakun-de horrek ustiatu eta kudeatuko ditu.

7. Sozietate instrumental edo erakunde publiko batek xedapen honetan oinarrituta atxiki dizkieten higiezinetatik lortzen dituen diru-sarrerak higiezin horiek kudeatu eta mantentzeko erabiliko dira, eta haiek zaharberritzeko, behar izanez gero, edo Nafarroako errentamendu babestuko etxebizitza-parke publikoa handitzeko”.

Zortzi. Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrria eransten da, testu honekin:

“Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria. Errentamendu sistema publikoari berriz lotzea.

Errentamendu babesturako kalifikatutako sus-tapen batek, bere babes aldia amaituta, ez badu epean eta behar bezala izapidetu 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrari edo 10/2010 Foru Legearen hogeita batgarren xeda-pen gehigarriari heltzeko eskaerarik, eskatu ahal-ko du aplikatzekoa zaion xedapenari heltzeko, bal-din eta, sustapena xedapen horretan ezarritako baldintzekin kudeatzeko konpromisoaz gainera, agiri hauek aurkezten baditu eskaerarekin batera:

– Etxebizitzen okupazio egoerari buruzko txosten zehatza, errentamendu kontratu indardu-nak barne hartzen dituena.

– Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua, barne hartzen duena Eraikinaren Ebaluazio Txostena “Gai” emaitzarekin, higiezinaren antzinatasuna gorabehera.

– Eraikinaren Ebaluazio Txosteneko emaitza “gai” ez bada, sustatzaileak birgaitze babestuaren espedientea izapidetu ahalko du.

Dokumentazioa ebaluatu ondoren, etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak ebatzi ahalko du sustapena berriz sar dadila alokairu sis-tema publikoan. Ebazpenak ondorioak sortuko ditu Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak ebazpena ema-ten duen egunetik, edo, birgaitze jarduketak egin

behar badira, izapidetutako birgaitze espedientearen behin betiko kalifikazioa lortzen den egunetik.

Une horretatik aurrera, etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak dirulaguntza eman ahalko die etxebizitzetako uneko maizterrei edo maizter berriei, arau honetako determinazioetan oinarrituta”.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamenduak egiteko gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitza arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean.

10-23/PRO-00006. Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 2an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Nafarroako Foru Komunitateak bereganatutako eskumenak baliatuz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea onetsi zuen, babes zibileko eta larrialdien kudeaketaren inguruko jarduketak arautzeko Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, baina deusetan galarazi gabe interes nazionalako larrialditzat jotzen diren egoerak arautzeko Espainiako arauak xedatzen dutena eta, halakorik izanez gero, aplikatzekoa den Europako araudiak xedatzen duena.

Geroago otsailaren 28ko 8/2019 Foru Legea onetsi zen, aipatu 8/2005 Foru Legea aldatzeko, arriskuen, baliabideen eta legeriaren bilakaeran oinarrituta.

Baina esperientziak erakusten du aldaketa gehiago egin behar zaizkiola, larrialdietako laguntzaren eta kudeaketaren egungo egoerara egokitzeko aldera.

Halaber, prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzu publikoen bilakaerak eraginda, lehenbiziko aldiz aldaketak egin behar dira 8/2005 Foru Legearen IV. tituluari, Foru Komunitateko administrazio publikoek ematen dituzten prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuei buruzkoan.

Artikulu bakarra. Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legea honela aldatuta geldituko da:

Bat. 2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. artikulua. Definizioak.

Foru lege honi dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:

Galzoria: babes zibilak zaindu beharreko pertsona-taldeei edo ondasun-multzoei egoera jakin batzuetan kaltea egiteko ahalmena.

Zaugarritasuna: pertsona-talde edo ondasun-multzo baten ezaugarria, inguruabar jakin batzuetan galzoriaren eragina neurri handiago edo txikiagoan jasateko moduan egotea dakarkiena.

Mehatxua: babes zibilak zaindutako pertsonak eta ondasunak duten egoera, zeinean berehalako edo ezkutuko galzori baten aitzinean baitaude neurri handiago edo txikiagoan.

Arriskua: mehatxu bat pertsona-talde edo ondasun-multzo bat ukitzera iristeko aukera.

Larrialdia: bat-batean sortzen den egoera, ondasunen nahiz pertsonen bizitza edo osotasun fisikoa arrisku handian jartzen dituen edo erasotutak gertatzen direneko, eta berehalako neurriak hartzea eskatzen duena, arriskua bertan behera uzteko edo kalteak minimizatzeke. Arruntak nahiz apartekoak izan daitezke.

Aparteko larrialdia: bat-bateko arrisku kolektiboko egoera, pertsonak edo ondasunak berehalako galzorian jartzen dituen gertaera baten ondoriozkoa eta botere publikoen aldetik horiek artatzeko, kalteak arintzeko edo katastrofe bihurtzeko dadin ekiditen saiatzeko kudeaketa azkarra exijitzen duena.

Larrialdi arruntetik bereizten da azken horrek ez duelako eragin kolektiborik.

Katastrofea: biktima, kalte edo inpaktu material ugari eragiteagatik erkidego edo gizarte baten funtzionamendua substantzialki asaldatzen edo eteten duen egoera edo gertakari bat, artatze-

baliabide gehiago eskatzen dituen erkidegoak berak eskuragarri dauzkanak baino.

Oinarrizko zerbitzuak: beharrezkoak direnak oinarrizko eginkizun sozialak, osasuna, segurtasuna eta herritarren ongizate sozial eta ekonomikoa edo administrazio publikoen funtzionamendu eraginkorra mantentzeko.

Zoritxar publikoa: biztanleengan eragin orokorra duen katastrofea.

Larrialdietako laguntza: pertsonen bizia eta osotasun fisikoa babestea helburu duten jarduketak urgenteak, baita ondasunak eta ingurumena zaintzekoak ere, gizakiak nahiz naturak eragindako larrialdiak gertatzen direnean.

Alerta: galzori edo arrisku garrantzitsu baten gertagarritasunaz ohartarazteko abisua edo deia.

Alarma: hurbil-hurbileko galzori ziur batez ohartarazten duen seinalea.

Arriskuen mapa: dokumentu kartografiko ofiziala, Nafarroako Foru Komunitateko garrantzizko arriskuak seinalatzen, deskribatzen, sailkatzen eta kokatzen dituen eta arrisku bakoitza lurraldeko zein zonatan dagoen zehazten duena.

Urgentzia: lekuren edo jardueraren batean norbaiti ustekabea arazo bat gertatzea berehalako laguntza premiaren kontzientzia sortzen diona, arazoaren kausa eta larritasun maila gorabehera”.

Bi. 3. artikuluan e) apartatua aldatzen da eta i) eta j) apartatuak gehitzen dira; testua honela geldituko da:

“e) Ezbeharra sortzen duten zergatietan batera eta berehala esku hartzea, haiek deuseztatze, hedadura eta ondorioak murrizteko eta herritarrak babesteko eta sorosteko”.

“i) Behar diren ikuskapen lan guztiak egitea babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko araudi indarduna betetzen dela egiaztatze.”

j) Herritarrek eta babes zibileko boluntarioen erakundeek parte har dezaten sustatzea”.

Hiru. 4. artikuluari 4. apartatua gehitzen zaio eta testu hau izanen du:

“4. Nafarroako administrazio publikoek, beren eginkizunak betetzean, arreta berezia jarriko diete pertsona eta kolektibo zaugarrienei”.

Lau. 9. artikuluari 5. apartatua gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“5. Babes zibileko planak etengabe eguneratuta egon behar dira eta egokituta haien egituran edo operatibitatean gerta daitezkeen aldaketetara,

bai eta haiek ezartzeko prozesuan lortutako emaitzen arabera edota haien denbora-aktibazioaren esperientziaren arabera ere”.

Bost. 22. artikularen 1. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“1. Larrialdi bat hain handia denean edo halako hedadura hartzen duenean non erantzuteko ahalbideak gainditzen dituen, Nafarroako Gobernuak katastrofetzat har dezake, babes zibilaren arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak proposaturik”.

Sei. 26. artikularen 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari eginkizun hauek dagozkie:

a) Nafarroako Gobernuari aurkeztea Nafarroako babes zibileko lurralde plana, larrialdietako plan berezi eta berariazkoak eta babes zibilaren arloan beharrezkoak diren gainerako xedapen orokorrak, onets ditzan.

b) Nafarroako babes zibileko lurralde planean eta larrialdietako plan berezi eta berariazkoetan finkatzen diren zuzendaritza lanak betetzea, salbu eta 22. artikuluan aurreikusi den egoeran.

c) Nafarroako Gobernuari proposatzea katastrofe egoera deklaratu dezala.

d) Nafarroako Babes Zibileko Batzordeko buru izatea.

e) Larrialdiak kudeatzeko zentroaren protokolo operatiboak onestea.

f) Zehapen ahalmena erabiltzea, foru lege honetan ezarritako moduan.

g) Indarreko arauak esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak”.

Zazpi. 27. artikularen 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Babes zibilaren arloko agintari gorena udalerrian alkatetza daukan pertsona da eta, horrenbestez, hari dagokio udal plana abian jar dadila agintzea eta, kasua denean, hartan ezarritako zuzendaritza eta koordinazio lanak betetzea, plana geldiaraztea, beste administrazio publiko batzuen baliabideak eskatzea eta goragoko plan bat abian jar dezatela eskatzea”.

Zortzi. 28. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Udalez gaindiko entitateko buruak aurreko artikuluan alkatearen esku uzten diren eginkizu-

nak beteko ditu, bere lurralde esparruan eta udalez gaindiko planen arabera”.

Bederatzi. 34. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“34. artikulua. Babes zibileko boluntarioak.

Babes zibileko boluntarioek larrialdiak kudeatzen laguntzen ahal izanen dute, gizarteak gertakari horiei emandako erantzunaren erakusgarri, aplikatzekoak diren arauetan ezarritakoarekin bat eta herritarrek laguntzeko duten betebeharrak orokorra ezertan ere galarazi gabe.

Babes zibileko boluntarioak adin nagusiko pertsonak dira, beren borondatez eta ez irabazi pertsonalik ez korporatiborik lortzeko asmorik gabe entitate batean sartzen direnak, administrazio publiko eskudunek esleitzen dizkieten babes zibileko ohiko eginkizunak garatu ahal izateko erakunde horretan.

Boluntarioek babes zibilaren esparruan egindako jarduerak boluntario horiek sartuta dauden entitateen bidez eginen dira, boluntario-lanari buruzko araubide juridikoarekin eta boluntario-lanak azpian dauzkan balioekin eta printzipioekin bat, eta haien jarraibideei lotuz, eta horien laguntza ez da inolaz ere gauzatuko administrazio publiko jardulearekiko lan-harreman baten bidez.

Boluntarioek babes zibilaren arloan egindako jarduerak laguntza ematekoak eta larrialdietako zerbitzu publikoen mendekoak izanen dira beti, eta haien zuzendaritzapean jardunen dute soilik.

Foru Komunitateko Administrazioak eta udalek larrialdietarako boluntarioen taldeen ekimenak bideratuko dituzte, boluntarioek babes zibilaren, prestakuntzaren eta laguntza teknikoaren arloan egiten duten lanari buruzko informazioa eman eta zabaltzeko eta haien lana goresteko kanpainak eginez.

Babes zibileko boluntarioen elkarteek Boluntarioei buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legean ezarritakoari segituko diote, eta izena eman beharko dute babes zibilaren arloan eskumena duen departamentuari atxikitako erregistro erreklamenduz zehaztuan.

Babes zibileko boluntarioen elkarteen erregistroan izena emateko, beharrezkoa izanen da aurretiaz Foru Komunitateko Administrazioarekiko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea. Erregelamendu bidez ezarriko da hitzarmen horien edukia, zeinak honako hauek jasoko baititu gutxienez ere: bere baliaibideak haren eskura jartzea; laguntzeko eta parte hartzeko modua eta halako kasuetan lego-

kiekeen konpentsazioak, eta entitate horien giza baliaibideen heziketa kreditatua.

Boluntario-laneko elkarte bateko eskubide osoko boluntario gisa babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan prebentzio- eta operazio-lanetan parte hartzeko beharrezkoa izanen da babes zibilaren eta larrialdien arloko departamentu eskudunak emandako kreditazioa edukitzea; horretarako, beharrezkoa izanen da erregelamenduz bidez ezartzen diren curriculum-gaitasunak edukitzea lan horiek egiteko.

Boluntarioen talde eta erakundeetako kide diren boluntarioek aseguru bat izanen dute, kasuan kasuko erakundearen kargura, eginkizunak betetzeak dakartzan istripu arriskua eta erantzukizun zibila estaliko dituen”.

Hamar. 39. bis artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“39. bis artikulua. Babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak.

Honako hauek dira babes zibileko larrialdietan esku hartzeko eta laguntzeko zerbitzuak:

a) Babes Zibileko Zerbitzua eta Larrialdien Kudeaketarako Zentroa.

b) Ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak, ospitaleetako larrialdi zerbitzuak eta oinarrizko osasun laguntzakoak, ospitale eta osasun etxe publikoak eta osasun-garraio publikoak edo itunduak, bai eta osasun publikoko zerbitzuak ere.

c) Nafarroako administrazio publikoetako prebentzio, su-itxaltze eta salbamendu zerbitzuak.

d) Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako toki entitateetako poliziak.

e) Errepide-mantenimenduko eta herri-lanetako zerbitzuak, eta basozaintzako eta ingurumenaren babeseko langileak.

f) Gizarte zerbitzuak.

g) Estatuko segurtasun kidego eta indarrak, eta larrialdien kudeaketa xede duten Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

h) Babes zibileko boluntarioen elkarteek eta toki entitateen mende dauden suhiltzaile boluntarioek zerbitzu publikoen mende jardunen dute.

i) Telekomunikazioen, uraren, gas eta fuelaren eta argindarraren sareen hornidura, mantentze eta zainketa zerbitzuak, eta oinarrizko zerbitzuen beste hornitzaile batzuk”.

Hamaika. 40. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak larrialdietako deiei erantzuteko zerbitzu publikoa emanen du larrialdietarako Europako 112 telefono zenbaki bakarraren bidez edo Europako legedian finkatzen den beste baten bidez”.

Hamabi. 41. bis artikuluan a) apartatua aldatzen da eta f), g) eta h) apartatuak gehitzen dira; testua honela geldituko da:

“a) Larrialdietako deiak hartzeko zerbitzua ematea larrialdietarako Europako 112 telefono zenbaki bakarraren bidez”.

“f) Alerta eta larrialdi egoerak kudeatzea eta koordinatzea.

g) Ariketa eta simulakroetan eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako prebentzio-jarduketetan parte hartzea.

h) Edozein motatako larrialdi batean babes zibileko plana aktibatu ondoren planaren zuzendaria esleitzen dizkion eginkizun guztiak”.

Hamahiru. 42. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“1. Administrazio publikoek eta, zuzenean edo zeharka, larrialdietan laguntza emateko jardueretan aritzen diren erakunde publiko eta pribatuak, Larrialdiak Kudeatzeko Zentroari jakinarazi behar diote Nafarroako Foru Komunitatean babes zibileko larrialdi bati bidea eman diezaiokeen edozein inguruabar edo egoera, eta zentro horretako langile eta agintariei lagundu behar diote”.

Hamalau. 45. artikulua 2. apartatuko a) letra aldatzen da eta testu hau izanen du:

“a) Suteen prebentzio eta itzaltzearen inguruko jarduerak, eta mota guztietako ezbehar eta arrisku egoeretan pertsona eta ondasunen babesa, bilaketa eta salbamendua”.

Hamabost. 53. artikulua 1. apartatua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“1. Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetan lanpostu hauek izanen dira, eta kasu bakoitzean ezarritako eginkizun orokorrak izanen dituzte:

a) Suhiltzaile-ofiziala, A mailakoa. Zerbitzuaren unitate tekniko eta operatiboen zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak dagozkie, bai eta goi mailako eginkizun teknikoak ere prebentzioaren, ikuskaritzaren, su-itzaltzearen eta salbamenduen arloan.

b) Suhiltzaile-ofizialordea, B mailakoa. Zerbitzuaren unitate tekniko eta operatiboen zuzendaritza eta koordinazio eginkizunak dagozkie, bai eta erdi mailako eginkizun teknikoak ere prebentzioaren, ikuskaritzaren, su-itzaltzearen eta salbamenduen arloan

c) Suhiltzaile-kaboa, C mailakoa. Zerbitzuaren unitate operatiboen ikuskaritza eta zuzeneko aginte eginkizunak dagozkie, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

d) Suhiltzailea, C mailakoa. Esku-hartze operatiboko eginkizunak eta betetze-eginkizunak dagozkie, goiko agintedunen zuzendaritzapean.

e) Suhiltzaile-gidari laguntzailea, D mailakoa. Bere mailako eginkizunak dagozkie.

f) Suhiltzaile-peoi laguntzailea, D mailakoa. Bere mailako eginkizunak dagozkie”.

Hamasei. 54. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“54. artikulua. Kidegoan sartu eta gora egitea.

1. Suhiltzaileen lanpostu hutsak funtzio publikoan sartzeko deialdi publikoa eginda beteko dira, oposizio edo oposizio-lehiaketa bidez. Hautaprobentzen artean, betiere, Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da, zeinean Hezkuntza Departamentuak berriazko deialdia eginen baitu Osasun Larrialdietako teknikariaren lanbide heziketako titulua lortzeko probetarako. Suhiltzaileen Oinarrizko Prestakuntza Ikastarorako onartutako izangaiek proba horiek gainditu behar dituzte. Ikastaroak dirauen bitartean izangaiek praktiketako funtzionarioak izanen dira.

Hautaprobetarako onartuak izateko, izangaiek C mailara sartzeko eskatzen den titulazioa eduki behar dute.

2. Suhiltzaile-kaboen lanpostu hutsak gorago kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaileen artean. Lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Goragoko kategoriara igotzeko lehiaketa horretan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izanen da suhiltzaile gisa gutxienez hiru urteko zerbitzuak egiaz eman direla frogatzea eta C mailara sartzeko eskatzen den titulazioa edukitzea.

3. Suhiltzaile-ofizialordeen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira; oposizio-lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Igoera txandan parte hartzen ahalko dute suhiltzaile-kaboeak, baldin eta frogatzen badute kabo gisa gutxienez hiru urteko zerbitzuak egiaz eman dituzte-

la, eta B mailara sartzeko eskatzen den titulazioa badute.

4. Suhiltzaile-ofizialen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira; oposizio-lehiaketan, Segurtasun Eskolak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile-ofizialordeek parte hartzen ahalko dute oposizio-lehiaketa murriztuan, baldin eta frogatzen badute ofizialorde lanpostuan gutxienez bost urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulu, unibertsitateko goi mailakoa, badute. Horren ondotik ateratzen diren lanpostu hutsak txanda irekiko oposizio-lehiaketaren bidez beteko dira.

5. Aurreko ataletan aipatzen diren sarrera eta igoera prozedurak ebatzi aitzin, dauden lanpostu hutsak Nafarroako edozein administrazio publikotan lanpostu berdinak betetzen dituzten funtzionarioen arteko lekualdatze lehiaketara aterako dira.

6. Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetako lanpostuak betetzeko ezartzen diren proba fisikotan genero-berdintasuna zaintzeko neurri egokiak hartuko dira”.

Hamazazpi. 55. artikuluan 1. eta 3. apartatuak aldatu eta 4. apartatua gehitzen da, eta testu hau izanen dute:

“1. Suhiltzaileen edo suhiltzaile-kaboen lanpostuetan aritzen diren funtzionarioek 55 urte betetakoan destino hauetako bat aukeratzeko ahalko dute:

a) Lanpostu berean gelditzea 60 urte bete arte. Horretarako, osasun azterketa eta gaitasun fisiko probak gainditu beharko dituzte urtero, lanpostuan aritzeko behar diren baldintzak dituztela frogatzeko.

b) Dauden zerbitzu berean bigarren jarduerako lanpostu batera pasatzea (zerbitzu osagarriak). Horrelako lanpostuak izanen dira laguntzarako edo prestakuntzarako jarduerak edo jarduera osagarriak egitekoak, langile bakoitzaren ahalmenaren arabera, hau da, lanbidean aritu diren denboran ikasitakoa eta bizitakoa garatzeko aukera ematen dutenak, baina ezbeharretan zuzenean parte hartu gabe. Hori ezinezkoa baldin bada, dela bigarren jarduerako lanposturik ez dagoelako, dela langilea horretan aritzeko gaitua ez dagoelako, bere mailari eta titulazioari dagokien administrazio publiko bereko beste lanpostu batean zerbitzu osagarriak egitera pasatzen ahalko dira; erregelamenduz ezarritako lanpostu aldaketa horiek egiteko prozedura eta lanpostu horietan aritzeko baldintzak”.

“3. Bigarren jarduerako lanpostu batean ari direnek ezin izanen dute aurreko artikuluan gora egiteko ezarritako prozeduretan parte hartu, ez eta horiei lotutako lekualdatze lehiaketetan ere.

4. Behin 55 urte bete ondoren zerbitzu operatiiboan jarraitzen duten langileek denbora-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute erregelamenduz ezarritakoaren arabera”.

Hemezortzi. 63. artikulua aldatzen da eta testu hau izanen du:

“63. artikulua. Zehatzeko eskumena.

1. Zehatzeko ahalmena udalei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokie, artikulua honetan ezarritako moduan, arau-haustetaz jutzen den jokabideak planaren zer arlo ukitzen duen, horren arabera.

2. Arau-hauste arin eta larriak zehatzea alkateari dagokio, salbu eta, arau-hauste larrien kasuan, isunaren zenbatekoa dela-eta, babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrari badagokio. Arau-hauste oso larriak zehatzea, isunaren zenbatekoaren arabera, babes zibilaren arloko kontseilari eskudunari edo Nafarroako Gobernuari dagokio.

3. Babes zibilaren arloko eskumena duen departamentuko titularrak, ikuskapenak egiteko dagokion ahalmena erabiliz, uste badu alkateak zehatu beharreko arau-hausteren bat egin dela, haren berri emanen dio, behar bezala joko dezan. Hilabeteko epean alkateak ez baditu behar bezalako zehapen jarduketak egiten, eskumen hori babes zibilaren arloan eskumena duen kontseilariak hartuko du bere gain.

4. Isunak jartzeko eskumena honako agintari hauek izanen dute, isunaren zenbatekoaren arabera:

a) Alkateak, 30.000 euro bitartekoak.

b) Babes zibilaren arloko eskumenak dituen departamentuko titularrak, 600.000 euro bitartekoak.

c) Nafarroako Gobernuak, 2.000.000 euro bitartekoak”.

Xedapen iragankor bakarra. Suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan ari diren langileen egoera

1. Suhiltzaile-sarjentuen lanpostuak, B mailakoak, “iraungi beharreko” lanpostutzat joko dira plantilla organikoan.

2. Iraungi arte, suhiltzaile-sarjentu lanpostuetan ari diren langileek dagozkien eskubide eta

betebehar guztiak atxikiko dituzte eta egun esleituak dituzten eginkizunak beteko dituzte.

3. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren uztailaren 31ko 102/2018 Foru Aginduak –zeinaren bidez Uretako Erreskate Taldea Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren egituran txertatzen baita, eta Erreskate Teknikorako Taldea sortzen– suhiltzaile-sarjentu lanpostuaz egiten dituen aipamen guztiak suhiltzaile-ofizialorde lanpostuaren aipamentzat hartu behar dira.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe uzten da azaroaren 20ko 82/2006 Foru Dekretuaren 1. artikulua. Dekretu horrek zehazten ditu Nafarroako administrazio publikoen prebentzio, su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetan suhiltzaileen sarjentu eta ofizial lanpostuetan sartzeko eskatu behar diren tituluak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.